


ANASTASIO ARRINDA
(Anes Lazkauko)



OTO TA POTOTO

(Bigarren zatia)



ANASTASIO ARRINDA ALBISU

(Anes Lazkauko)



OTO TA POTOTO

(Bigarren zatia)

EUSKERAZAINTZA

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.

© ANASTASIO ARRINDA

ISBN: 84-7086-226-X

Legezko gordailua: S.S. 764/88

ITXAROPENA, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautzen irarria

ESKEINTZA

*Liburu onen lenengo zatia bezela
bigarrena ere, Albisuneko Inaxiri
eskeintzen diot.*

*Liburu ura atera aurretik
il zitzaidan ama; baiña Oto ta Pototoren
kontura bere parretxoak egin ondoren.*

*Gaurko onetan,
zure ordeztu, beste batek egingo ditu
parretxoak. Torizu.*

Zure seme Anes Arrindatarrak.

DEBAN Ikainak 17. Urtea 1988.

ATARIAN

*Ogei urte dira OTO TA POTOTO atera nuela
euskaldunei irakurtzea errezteko.
Irakurgai errezak. Parre eragitekoak.
Parre eragiñez, erakutsi.*

* * *

*Liburuxka ura arin agortu zan.
Bigarren zatia dakartzut orain. Xumea eta apala.
Oraingo giroa ez da ordukoa.
Orduan ezergutxi zegoen merkatuan.
Goitik iñungo laguntzarik ez; baiña, erriak
arrera ona egiten zion euskal-kutsua zuen
edo-zer gauzari.*

* * *


*Orduko Euskera, bei antzutua, gaur
iturri emankorra gertatu da. Goitik datoz
laguntzak. Erri-aldekoak sakabanatu egin
dira; murriztu ez badira. Nekez irakurtzen dira
euskal-liburuak. Komunikabideen argira
salduko da saltzen dana. Andik kanpo
gelditzen dana illunpean bearko du.*

*Izanen al du OTO TA POTOTOren bigarren zatitxo
onek bere biderako argizadiren bat.
Gipuzkeraz dator; tarteka bizkaieraz ere bai.
Alkar ezagutzeko eta batasun-bidean.*


NON - ZER

1.- Soldaduzka itsasoan	13
2.- Gizon ondradua	14
3.- Zuriak ala baltzak	15
4.- Oto, semea eta txakurra	17
5.- Tizioaren emaztea	19
6.- Matematika-maixua	19
7.- Juezaren aurrean	20
8.- Diru palsoa	20
9.- Saltamatxingoak	21
10.- Etxarriko xistema berria	22
11.- Parolak eta zugaitzak	24
12.- Oto indartsua	24
13.- Ordua	26
14.- Pototo dendari	27
15.- Jainkoaren dirutxuak	27
16.- Mielen tabernan	28
17.- Lazkaoko mojetan	29
18.- Donostiako zinean	29
19.- Medikua eta txipiroiak	30
20.- Beti bat	30
21.- Moskortuta ote?	32
22.- Aurra Otoren etxean	33
23.- Otoren ortzak	33
24.- Garajea	34
25.- Gabonetako eskeintzak	34
26.- Aterkia	35
27.- Oto Konbiratua	36
28.- Oto ondoez eta arotz	37
29.- Ototxoren almendrak	39
30.- Ototxoren ateraldiak	40

31.- Txilibristo eta ordua	41
32.- Ototxo kosmonauta	42
33.- Gerratean	42
34.- Oto eta Moises	43
35.- Senarrari atsegia	44
36.- Arifiago izan balitz	45
37.- Los Rios misiorako eskabidea	47
38.- Mozkortu ala zer?	47
39.- Arrazoiakin	48
40.- Zaldi-laisterketa	49
41.- Auzoko Anixeta	49
42.- Ilda gero ere	50
43.- Teatroa merke	51
44.- Estatutoa eta beia	52
45.- Soldaduzka Estatutoarekin	54
46.- Estatutoari bai traje berriakin	55
47.- Mitina	57
48.- Keia dariola	58
49.- Maite galkor	60
50.- Ototxo	61
51.- Iturri gorriko sankristaua	63
52.- Goizik	64
53.- Poltza ala bizia	65
54.- Gosea kentzeko	66
55.- Oto kursilista	67
56.- Erderaz ikasten	69
57.- Ardoaren okerkeriak	71
58.- Zein astoago	72
59.- Zorionak	73
60.- Arrantzan	73
61.- Ototxoren prolemak	75
62.- Pilato-alargunaren eskontza	76
63.- Noel, Olentzaro, Erregeak eta zaldi-gorotza	78
64.- Praillea eta eperrak	81
65.- Oteren meloiak	85
66.- Ura eta erradea	88
67.- Larri-aldia	89
68.- Txokolate gogorra	91
69.- Perrejillondo eta txoriak	93
70.- Alkatiari omena	95
71.- Ispi zalatari	99
72.- Sorgintzan	104
73.- Barometroa, letxugak eta errepublikanoak	109
74.- Erderaz alfabetatzen Estatuto bearrik ez izateko	113



POTOTO



OTO

SOLDADUZKA ITSASOAN

Otoren seme nagusia soldaduzka egitera doa eta bere gogoz joan ere. Zer aukeratuko eta ez du ba "marina" aukeratu?

Aitak semeari:

-Goierriko semea izan eta "marina" aukeratuko oan, ba...!

-Zer...? Nik mundua ikusi nai det.

-Eta, mundua ikusteko itsasoa aukeratu bear al dek...!

-Zergaitik ez...?

-Itsasoa mundurik ez dagoelako. An ura bakar-bakarrik zegok...

* * *

Aitari jaramonik egin gabe, Donostira dijoa semea Caja de Reclutas'era:

-Zer nai...?

-Soldadu nai det.

-Norako?

- Itsasorako.
-Itsasoan ibiltzeko?
-Bai.
-Ba aldakik igari...?
-Igari?
-Bai, igari.
-Ez.
-Orduan, nola nai dek igari jakin ez eta itsasora joa-
tea...?
-Barkurik gabe al zaudete ala...!

GIZON ONDRADUA.

Oto'k dendariari:

- Aizu, gaur goizean milla pesetako papera eman dizut
kobratzeko ta kobraketan okerra gertatu zatzu: ekiboka-
tu egintzera...
-Orain berandutxo da protestan etortzeko...
-Zer, ba...?
-Goizean etorri bear zendun; emendik irten da berea-
la...
-Baña...
-Emen ez dago bañarik... Orain berandu da...
-Orduan, zer egiñ...?

- Or konpon!
- Or konponekin bakarrik ez degu auzia erabakitzen...
- Or konpon, Mari-Anton! Obeto al dago orrela...?
- Ez dezu ezer jakin nai...?
- Nik ez det ezertxo ere jakin nai gauza orreri buruz!
- Ez orregatik asarretu, gizona. \
- Naikoa itz egin degula uzte det. Ate orretatik juaten da kalera!
- Oto'k ate ondotik:
- Eskerrik asko, gizon. Ba-noa, ba-noa. Emendixek esango dizut lenago esaten utzi ez didazuna: bueltatan bosteun peseta geiago eman dizkidazu goizean... Agur...!

ZURIAK ALA BALTZAK

Oto ofizio eta lanbide askotako gizona dogu. Etxegintzan lan gitxi eta baserrira jo dau berriro. Artzain egin jaku. Ardi mordo bat be badauko. Zuriak eta baltzak.

* *

Prontxio jauna erriko dendaria da. Bidean Oto'rekin topa dau. Oto ardiekin dator aurrera. Prontxio'k eldu dautzo berbetako goguakin:

-Txo, Oto, ardi onek zenbat kilometro egiten dabe egunian-egunian?

-Nortzuk, zuriak ala baltzak?

-Zuriak, txo.

-Ba, bost kilometro edo...

-Eta, baltzak?

-Bardin.

* * *

-Entzun, Oto, zenbat jaten dabe ardi onek egunero-egunero?

-Nortzuk, zuriak ala baltzak?

-Zuriak, txo.

-Ba, amar kilo belar inguru.

-Eta, baltzak?

-Bardin.

* * *

-Adi, Oto, eta urtian ziar zenbat ille ematen dau ardi bakoitzak?

-Nortzuk, zuriak ala baltzak?

-Zuriak, txo.

-Lau kilo artille bakoitzak.

-Eta, baltzak?

-Bardin.

* * *

Prontxio jaunak atz egiten dautzo bera buruari: Oto burutik ondo ote dago?

-Oto, entzun egizu eta ondo entzun be eta neure esanari adi-adi egon: zergaitik galdeten dozu beti, zuriak ala baltzak, esanaz?

-Ardi zuriak neuriak dirazelako.

-Eta, baltzak?

-Be bai.

* * *

Prontxio jaunaren asarria!

Eskuan ekarren bastoiagaz buruan emon ez eutzon-
nian...!

Otok irripar gaiztua ezpañetan.

OTO, SEMEA ETA TXAKURRA

Otok semea du Europa-ifaraldean ordenadore eta beste orretariko tramankuluak ikasten; bai, ba, bein europar egin ezkeroz, Europa'rekin artuemanetan alkar ipiñi bear dugu eta Oto'ri beti gustatu zaio olatuaren apar-aparrear joatea.

Semeak aitari Alemania'tik:

-Aita, bialdu eidazu zure txakur Lagun, emengo jakintsuek asmakizuna sortu dute-ta, txakurrei izketan erakusteko. Zoragarri izango litzake Lagun berbetan ikustea eta zure izen ona eta fama zeruraino igoko litzake. Dirutxua barko da ortarako; baiña, orrelako txakur maitagarriak orrenbeste merezi duela usten dut.

Aitak bialdu zizkion txakurra eta dimtxuak.

Pozik bialdu ere. Orrelako gauzarik...!

Denboratxua pasa da eta semeak ez dio txakurraren berririk ematen. Kezkutzen ari zaigu Oto eta aolkua eskatu dio Pototo'ri:

-Txakurrak berba egiten ikasi lezake, Pototo?

-I zoratu egin aiz. Txakurra berbetan? Bai eta astoa bi-boliña jotzen. Orrelako astakeririk...! Txakurraren mintzoa, zaunka duk; ortik aurrera ez zak ezer espero...

* * *

Aitak semeari:

-Bota onuntz txakur ori eta aitzera eman nola dijoazen ire estudio oiek.

-Aita-erantzun dio semeak telefonoz- berealaxe bidalduko dizut zure txakur maitea. Ez dakizu ondo nolako poza artu duan berri ori eman diodanean. Erantzun dit oso pozik dagoela etxera biurtzeko, orrelako nagusi onarengana. Eta gero esan du: A zer parreak egingo ditugun andra Joxepari zea esaten diodanean, alegia, bera merkatura doan bakoitzeko wuiski botilla ondo astintzen dula nagusiak.

Oto giblekoakin dabil aspaldian eta sendagilleak alkoolik ez probatzeko aginduta daukio. Semeari erantzun dio:

-Gauzak orrela badira, obe duzu txakurra saltzea...



TIZIO'REN EMAZTEA

Otok bere aspaldiko lagun Tizio topatu du Donosti'ko kaleetan. Bere aldamenean andra bat darama: begi bakarra, errena, buru-soilla pelukearekin, ortzik gabe...

-Emen nere emaztea-dio Tiziok.

-Nundik atera duk traste zaar au-diotza Totok ixilka: kristalezko begia, egurrezko anka, astuen ortzak, basakatuen illeak...

-Itz egizak altuago, gogorra duk-eta.

MATEMATIKA - MAIXUA

Ototxok nota eskasak atera ditu matematiketan eta berriro azterketak ditu; obeto prestatzeko irakaslearengana joan da, mutillak berorrekin saio batzuek egin ahal izateko. Joandana semearen aita da: Oto jauna. Irakasle ori ikastolatik zetorren, berekasa berbetan eta beatzekin kontatzen:

-Bi eta iru sei dira, lau geiago amaika. Beraz, amaika urte daramaz etxe onetan matematikak erakusten.

JUEZAREN AURREAN

Juezak Oto'ri:

-20.000 pezta zor dituzu trafiko-poliziarri xenperrenak esan dizkiozulako.

-20.000...?

-Bai. Eta, epai-maiaren aurrean ezer geiago esatekorik ba al duzu?

-Ba...

-Esan, esan.

-Zuen multa-neurri oiekin edozein asten da emen xenperrenak esaten berriro...!

DIRU PALSOA

Oto kartzelan egona dugu eta an barruan egin zitun berealdiko ezaupideak. Aietako bat zen Krispolo jauna. Krispolok esku-beatzak ariñak oso; iñor konturatu gabe ateratzen zitun praka-poltxikoetatik bertan gordeta zeuden diruak. Ura errestasuna eskuetan. Zoragarri.

* * *

Goiz batean, Donostia'ko kai inguruan, orra or nun datorren Krispolo karrerako automobil gorri aundi batean.

-Kaixo, motel!

- Kaixo!
- Nundik nora, Oto?
- Emendik ara, Krispolo. Eta, i?
- Andik onera.
- Au duk kotxe ederra, Krispolo. Nun arrapatu duk?
- Arrapatu? Ez, motel, neure diruekin ordaindu diat.
- Ire diruekin? Ez diat siñesten.
- Siñestu bearko, ala duk-eta.
- Orduan, ori ala bada, diru paltsoekin ordaindu duk.
- Zorua naizela usten al duk diru paltsoak arrapatzeko, ala...?

S A L T A M A T X I N G O A K

Pototo alkate egin zuten ezkerok, turista amorratua biurtu zaigu, ikusita ikasten bait da. Bere ibilleratan jo du Australiaraiño. Oto aspalditik joana zan ara azukre-kañaberak ebakitzera, opizio orrek diru asko ematen bait zuan.

Alkar jo dute lagun zaarrek. Pototo beti izan da aundi-naikoa:

- Aizak, Oto, animala oiek zer dituk?
- Auek? Beiak, gizona, nungo mundutik ator...?
- Orain gure errikoak auek aña doble dituk.
- Zer egin diezute, ba, nik andik alde egin ezkeroz?

-Ormonak eta pienso compuestoak eta deminiokeri guztiak erabiltzen dizkitek ganadua gobernatzeko. Eta, oiek, zer dira?

-Zoratu egin al aiz? Oiek, ardiak.

-Gure errikoak oien doblekoak dituk orain. Iru aldiz ere bai, aundiago.

Inguru artan kanguroak zebiltzen saltoka larraiñetan.

-Eta, animala xelebrea aiek, zer dituk?

-Aiek...? Aiek zer diren...? Baita, baita... Zera dituk, erri onetako saltamatxingoak. Tok!

ETXARRIKO XISTEMA BERRIA

Europar sartu geran ezkeror, Etxarrin azoka europearra antolatzea erabaki zuten. Ori aurrera eramateko gizon azkar bat fitxatu dute Udalerako, Pototo jauna.

Pototo komunikabideetako injiniero famatuak, errian ordenametu berriak ipintzea du asmo. Erosi ditu kartel-agiri berriak: urdiñak eta gorriak. Sakabanatu ditu erri osoan: errien gorria, an urdiña; an gorria, emen urdiña... Zoragarri polit. Beste erri bat dirudi.

Azoka egunean estrenatu zuten ordenametu berri ori. Goiz ederra eta egunsenti argi ezpela. Ba datoz lau ai-zeetatik automobillak jeneroz beteak.

Oto ere emen da.

Alemania'tik ekarri ditu txerri bereziak: saiatzezur bat geiago dute eta luzeak dira ogi gabeko eguna baiño.

-Baiña-diotza Pototo jaunak- nolán ekarri dituk zerriak Etxarri'ra mendiak zerriz beteta baldin ba'daude...?

-Auek, ordea, luzeagoak dira.

-Zerria, motza ohea, zion gure aitonak.

Dana dala, zerriak emen daude, eta zer ez da errira etorri...! Sekulako azoka ederra.

Illunabarrean asi dira irteteko asmotan berebillak berotzen... Zer arrano gertatzen da emen? Sartu errez sartu dira guztiak; nolanaiko aukerak errian sartzeko; baiña, orain sekulako iskanbilla sortu da.

Otok protesta:

-Sarrerak ugari; irteerarik bat ere ez.

IVA gaintzeko xistema ona omen da ori. Jeneroak sartu eta atera ezin...



PAROLAK ETA ZUGAITZAK

Ototxo bere aitarekin dabil eta Lagun bere txakurrak ankatxoak jaso du zugaitz-enberraren kontra.

-Aitatxo, zergaitik dira tantai-arbolak ain luzeak.

Otok, txakurrak zer egin duan ikusita, onela erantzun dio:

-Txakurrak erregariatzen dituztelako.

-Orduan badakit zergaitik diran ain luzeak erriko parolak.

OTO INDARTSUA

Oto patxara ederrean eguneroko aldizkaria irakurtzen dago. Bai ba, gaur festa da-ta, atsedena pozgarriago. Andre Joxepa, berriz, urduria berez, geldi egon ezin. Ba dau ganbaran kutxa aundi bat traste zaarrez gaiñezka: umetxoa zanezko andrakoak ere bai. Axe ekarri nai dau, olloak lez aztarrikan egiteko bere barruan:

-Aizu, senartxo, ganbarako kutxa zaarra ekarriko deutzazu? Egizu, maite orrek...

Otok berbarik be ez. Erantzunik ere ez. Donosti eta Bilboko kopa-partidua irakurtzen diardu: Sarabiak orduantxe gola sartzen Arkonadari. Eta, nolako gola...!

-Senartxo, jeitxixu kutxatxua...

-Utzidan pakean.

Aurrera biderik ez dagoela pentsatzen ari da Andre Joxepa; baiña, bat-batean argitxu bat biztu zako bere garunetan:

-Bai, jakiña, arro ibiltzen zara zu zeurelako indarrak iñork ez dozalako... Perurenan beste omen zara... Zeu baño geixao iñor bez auzo guztian... Itzak ederrak eta berba galantak, besterik ez. Kresalaren aparra baiño geiago, ez. Arrotasunez burua bete dozu...

-Arrua neu...!?

_Bai, arro utsa. Zeure indarrok joan zirian ikutara... Kutxatxo bat ganbaratik ona ekartzeko be ez zara.

-Ez nazela? Berton ikusiko don.

Io dau ganbarara arin-aringa eta amen dator, trena la-koxe arnasarekin, traste zaarrez beteriko kutxa bizkarean dabela:

-Amen nun diran neure indarrak, bizi-bizirik oraidiño eta gordiñik...!

Andre Joxepa suk-aldean barrezka, gizonak panparoi-iñusente batzuek besterik ez dirazelako.

ORDUA

Oto joan da Bermio'ra ordularirik bage. Badagoz errian pillo bat ordulari, baiña Otok ez dau bat bera be ikusten. Gerturatu da gizontxo baterengana galdezka:

-Txo, mesedez esango eustazu ordua.

Gizontxoak:

-Ordua.

Otok:

-Ez, ori ez, nik trenaren ordua esatea nai dot.

Gizontxoak:

-Trenaren ordua.

Otok:

-Ez, ez, ori ezez. Nik guradotena da, zeuk esatea oraingo trenaren ordua.

Gizontxoak:

-Bai, bai "dakor": oraingo trenaren ordua.

Otok bere buruari:

-"Dakixenak badakixela". Emen ez dozak danak "barruan"...



P O T O T O D E N D A R I

Kiebra jotako etxe batean elektrika-tresnak erosi dauz Pototok merke. Teknikoa dabil tresneriari bigaratzen urduri eta larri.

Pototok esan deutzo:

-Ez zaitetz larritu jakin guraz zergaitik dabiltzain ain txarto tramankulu onek. Danak osorik eta prezio onean saldu dautzaguz Otori.

Bide ederra eramango dabe Australiatik ekarritako Oteren dirutxuak...

J A I N K O A R E N D I R U T X U A K

Oto Kristiandadeko Ekintza Europear artean sartuta dabil. Aste beteko jardun-aldiak izan dabez St-Denis de-ritzian Pariseko auzo batean: aleman, frantziar, ingles, eskoziar... Nai dan beste jende, klase guztietakoak.

Arazo asko eta eztabaida asko. Danen artean galderatxo bat:

-Nola banatzen dozuez biltzen diran diruak?

Alemanak erantzun:

-Guk errez. Bildutako danak sakela batean imiñi, lurrean klarionarekin kurpil borobil bat marraztu, gero sa-

kelako diruak aidean bora gorutz... Kurpillaren barruan gelditzen dozanak, oiek Jainkoarentzat; besteak, geuretzat.

-Guk errezago-diño frantziarrak-: lurrian marra bat egiten dogu, diruak gora bota eta marraren eskubi alde-tik erortzen diranak, Jainkoarentzat; besteak, geuretzat.

-Zuek konplikatua zarie-dio eskoziarrak-: geuk errezago. Ez dogu ez marrarik, ez borobillik egiten eta orre-la klarionik gasta bearrik be ez...

-Zer egiten dozue, ba...?

-Gauzarik errezena: diruak gora bota eta Jainkoak ar-tzen dabezenak, beretzat; beste guztiak, geuretzat.

Oto arrituta dago zenbat ikasten danarekin munduan ibilliaz:

-Arrazo eukan-diño-geure irakasleak, burua erabilliaz baifio geiago ikastendala oiñak erabilliaz, esaten ebanian.

Erabaki sendo bat artun dau: Ikastola Nagusiko matrikula egin baiño, oba dabela bere izena eskursiño guztietarako emotia.

MI E L E N T A B E R N A N

Mami ieltzeroa eta Oto musean ari ziran Lazkao'ko Miel'en tabernan. Mami ieltzeroa Deba'tik etorri zan Lazkoa'ra, Salegi debarrarekin, CA.F.eko (Compañia Auxiliar de Ferrocarriles) tximiñi luzeak egiteko. Gizon bizkorra eta famatua zan eta festak eratzeko oberik eziña.

Oto ta biak ari ziran enbidoka. Mamik dio:

-Nik ez det au galduko!

-Ez eta nik ere-Otok erantzun.

Miel'ek mostradoretik:

-Ia nik galtzen dedan...

L A Z K A O ' K O M O J E T A N

Itzaieri mojak errazioa eman oi zioten, beurentzako lanean ari ziranean, botella bat ardo eta ogia. Egun artan Oto'ri ez zion mojatxoak botellarik bete. Otok mojatxoari:

-Aizu, mesedez, ate ori itxi.

-Zer, ba...?

-Aizeak botella eramango dit-eta.

D O N O S T I K O Z I N E A N

Oto. eta bere emazte Andre Joxepa eguzkia artzera joan dira Donostia'ko ondartzara. Illunabarrean sartu dira zine batean. Pelikula polita zan eta naiko algara egin zuten biak; baiña, euria agertu zanean pelikulan, Joxepak larri Oto'ri:

-Ekarri al dezu aterkia?

MEDIKUA ETA TXIPIROIAK

Oto gaizki zebillen urdailletik, sakeletik. Azterketa batzuek egiteko, agindu dio medikuak baraurik etortzeko. Otok baraua zer dan ez daki eta batzuri-zopak jan ditu urdaiakin. Orregaitik berdin berdin izango da zion bere kolkorako. Joan zan, baiña alperrik. Gosalduta etorri zala esan zionean, sendagilleak etxera bialdu zuan onela esanez:

-Etorri biar baraurik.

Urrungo goizean, bigaramonean, etxetik baraurik aterra zan; tripa-zorriak ez zioten orde, pakean uzten; Kojuenera joan eta txipiroi-kazuelatxo bat eskatu zuan; bai pozik jan ere. Andre Joxepak erritan egin zion. Otok erantzun:

-Arrek nola jakingo du nik zer egin dedan?

BETI B A T

Larunbat-arratsaldea eta pelota-partidua errian. Oto oso da euskaldun, pelota-partiduetara ere joaten bait da... Bai ba, erriko zeak zeartu bear dira-ta...

Eta bide ona ikasi dezan aurtzarotik, Maider alabatxo txikiena eraman du berarekin pelota-lekura.

Maiderek zazpi urte ditu.

Jarri dira aurreko aulkietan. Pelotariak or dabilta, ba-koitza bere txokoan, eskuak berotzen. Alako batean, al-kartu dira laurak, bota dute txanpon bat aidean eta urdi-ñek irabazi dute sakea.

Asi da partidua eta luze antzean jokatu dute atzera eta txokora, ezker eskubi eta bi paretak. Gorriak irabazi.

Bigarren tantoan berdin atzera eta aurrera, bi paretak eta boleak: urdiñek irabazi. Irugarrenean, berdin eta urdiñek irabazi. Laugarrenean Mainerrek aitari:

-Aitatxo...

-Zer, umetxo?

-Goazen emendik.

-Nora?

-Kalera.

-Baiña, partidua asi berria dezu.

-Nik ez det emen egon nai.

-Zergaitik?

-Lenengo egin dutena, berdin-berdin ari dira berriro. Zertarako?



MOZKORTUTA OTE?

Pototok Oto'ri:

-Bart, Oto, zearo mozkortuta itzan?

-Ni, mozkortuta...? Iñundik ere ez!

-Bai, gizona.

-Ezetz!

-Ez al aiz gogoratzen nola jeiki eta andre bateri eskei-
ñi iokan ire eserlekua?

-Nungo munduan bizi aiz? Ori al dek iretzat mozko-
rraren ezaugarri bat?

-Nola dan...

-Orrek esan nai dik ni gizon prestu bat naizela.

-I, prestua? Preskua, bai beintzat.

-Eta, gainera, emakumeari begirunea diotela...

-Ago ixilik, mutil.

-Zergaitik ixildu bear dut?

-Gizona, gizona, autobusean i eta ni eta txoferra; bes-
terik ez bait zan iñor...



AURRA OTO'REN ETXEAN

Aurra zuten etxean lau illebetekoa eta Agustinak andre Joxepa'ri:

-Zuek guraso onak zerate.

-Bai, orixe.

-Eta gauerdian aurra negarrez asten danean zein jaikitzen zerate lenago, zu ala señoarra.

-Ez bat eta ez beste.

-Zein, ba?

-Auzoko guztiak.

OTO'REN ORTZAK

Pototok Oto'ri:

-Eraneun etxera nekez jo genduan eta i, ire ustez, ez itzan batere mozkortu; baiña, andra Joxepak sekulako zaratak atera omen zitun...

-Ez ainbestekoak; gaiñera aurreko bi ortzak kendu bearrezkoak niruan.

G A R A J E A N

Otok garajera automobilla eraman baiño lenago, gizon zuurra danez, prezioa eskatzen du:

-Zenbat kostatuko zait berebillaren reparazioa?

-Lanaren neurrian.

-Zer neurri?

-Lanarena. Zureak zer lan du?

-Ez dakit.

-Orduan, ogei milla pezta.

G A B O N E T A K O E S K E I N T Z A K

Otok eskuetan pardel bat dakar, paper politez bildua.

-Zer dakarrek or, Oto?

-Gabonetan gaituk...

-Eta?

-Badakik, andrea goxo tratatu bear...

-Joxeparentzako erregaloo...?

-Bai, orixe.

-Eta, zer eskatu dik andre Joxepak?

- Bisontezko jantzia ala labadora bat. Aukeratzeko zer.
- Pardel orretan bisontezko jantzia dakarkiok emazteari.
- Orrelako zeredozer.
- Bejondeikela, mutil. I aiz senarra tajuzkoa, i...!
- Kontu egizak, ez dagoela merkatuan imitaziozko labadorarik.

A T E R K I A

Pototo'rengana joan zaigu Oto; bidean erauntsi batek arrapatu du eta zearo goitik-beera buztita eldu da Pototo'ren etxera. Iriki diotenean, gizona gisa artan ikusita, onela diotza etxeoandreak:

-Baiña, gizona, nola ez duzu guardasol edo aterkirik artu irten baiño lenago?

-Etxean aaztu zait.

-Ez zera geiago bidean gogoratu?

-Bai, gogoratu naiz.

-Noiz, baiña?

-Ementxe, zuen ate-ondoan, ixteko asi naizenean.

* * *

Ekin diote tutean. Pototok:

-Ik, Oto, kartetan beti erabasten duk; baiña, zaldi-ki-nielarik ez duk bat ere sekulan asmatu.

-Bai, ori ere ala duk.

-Suerte desberdiña...

-Bai, nik emen kartak naasten zetiat; an, ordea, zaldirik ez.

* * *

Ortan ari dirala Pototo'ren txakurrak meriendea jan dio Ototxo'ri eta onek bere aitari:

-Aitatxo, txakur ori poliziakoa da?

-Bai, mutil, Alemania'tik ekarritakoa, oso berezia.

-Lapurretan egin dit.

-Eta, zer? Beste merienda bat artu.

-Poliziakoa ba'da, nolatan egiten du lapurretan? Izena ondo ipiñita duala uzten duzu?

O T O K O N B I R A T U A

Oto Australia'tik etorri zan eta Pototo'rekin topo egin zuanean, onela diotza bere lagun maiteari:

-Aspaldiko...! Zenbat urte alkar ikusi gabe... Egun au zelebratu egin bear diagu, Pototo.

-Gustora, mutil.

-Zer egingo dugu?

-Egin dezagun aparitxo bat gaur bertan. Eder deritxok?

-Ederki, ederki.

-Eta, nun? dio Pototok.

-Neregaitik kezkarik ez izan: esan emazteari aparitako plater bat geiago ipintzeko maiean eta an izango naizela bederatzietarako puntu-puntu...

O T O O N D O E Z E T A A R O T Z

Izen aundiko sendagille baterengana joan da Oto eta arrek Oto'ri azterketak egin ondoren, gure gizona larritu da:

-Jauna, berorrek izen aundia du eta ordainketak neurri ortakoak ba'dira, nik ez dut izango ordaintzeko dirurik, arlote xamarra naiz-eta...

-Arlotea al zera?

-Naikoa, jauna. Eskalea ez naiz; baiña, aberatsa ere ez.

-Ez izan orregaitik ardurarik; al dezun eran ordainduko didazu.

-Orretan ba'da, konprome.

-Baditut beste gaixo geiago bere lanakin ordaintzen didatenak.

-Ongi, ongi, oso ongi iruditzen zait.

-Begira, oietako bat jostuna da eta bear dedanean neure gorputza jantzi, arengana joaten naiz soiñekoa egiteko...

-Alan ba'da, neretzako zoragarri.

-Eta, zuk zer lan egiten duzu?

-Zarraldoak eta il-kajak.

* * *

Beste bein, Ponponato ari zan tabernan, Oto'ren aurrean, bere keixak kontatzen:

-Ezin dut lorik atzeman: ogean etzaten naizen bakoitzeko, burutasun larriak etortzen zaizkit kolkora.

-Zer burutasun?

-Oge-azpian gizonen bat edo pistiren bat egon leikeela eta zearo larritzen naiz.

-Lorik egin ezin orregaitik?

-Lorik atzeman ezin iñundik ere...

-Nik emango dizut erremedioa-diotza Otok.

-Sendagille-sikiatra al zera?

-Sendagille ez eta beste zer ori gutxiago oraindik.

-Zer zera, ba...?

-Arotza.

-Arotza izanik, nola sendatu nauzu?

-Zure ogeari anakak ebagita.

* * #

Illentzako zerraldoak egiten aspertu da Oto eta ofizioa aldatu nai. Egunkari batean auxe irakurri du:

"Erantzun aundiko lana eskeintzen dugu eta gizona bear dugu berrogei urtekoa, bizitazunez betea eta erabakiak unetxo batean artzeko gai..."

Otok berrogei ta bat urte ditu, milla ofiziotan eta bizibideetan ibillia da; bizia oso, Australia'raiño joateko erabakia artutakoa eta abar.

-Ara ni emen. Zuen iragarkia irakurri dut eta ni naiz zuek billatzen dezuten gizona, Australian ere izana naiz...

Ekin zion bere buruaren goraltzak egiten. Lilluratu zintun entzuleak:

-Bai, zu zerala uste dugu bear dugun gizona. Bertatik asi lanean.

-Bai, orixe; baiña, aurretik utzi idazue andre Joxepa nere emaztearekin konsultatzen...

Oto gizarajoa arosteaira berriro, il-kajak egitera.

OTOTXOREN ALMENDRAK

Gabonak igaro dira umore onean. Turroia be jan dabe naikoa. Pozik Otorxo eta gaur, barriz, pozago: ez dau ba, kajoi batean, almendraz betetako zorrotxo bat topa...! Au poza!

-Nun aurkitu dozu? -Amak.

-Aitetaren gelan.

-Ai, ene! Ez egizuz jan.

-Zergaitik ez? Oso gozoak dira.

-Aitak eroan dauz agiñak konpontzera.

-Eta zer, gozoak dira-ta!

-Alicante'ko turroia jan dogula aurtan...
-Eta, zer...?
-Ezin dauala jan...
-Eta, zer...?
-Miaztu bakarri egiten dauala...
-Eta, zer...?
-Ari miazkaten sobratutako almendrak dirala.
-Kotxino...!

O T O T X O R E N A T E R A L D I A K

Ototxo bialdu dau aitak Korreo-bulegora eskutitz bategaz, gizon prestu bateri Gabonetan zorionak emoteko. Zenbaitzuekin ondo gelditzea komeni eta marrazki edereder bat bialdu dautso. Ofizinakoak mutillari:

-Karta onek pixu geiegi dau eta seillo bat geiago ipiñi bearko dautsozu.

-Pixu geiegi dau?

-Bai.

-Eta, orregaitik beste seillu bat ipiñi bear dautsot?

-Bai.

-Ez al dau orrelan pixu geiago izango...?

TXILIBRISTO ETA ORDU A

Txilibristo Mexiko aldetik ibillia degu eta andik bi gauza auek ekarri ditu:

Kapel aundi-aundi bat eta lanerako alperra.

Oto inguratu zitzaionean, siesta ederra egiten zegoan, lurrean eserita eta egal-aundidun kapelaren itzalpean.

Aizu, Txilibristo, esango al didazu zer ordu dan?

Besteak, lurretik mogitzeke, aldameneko astoari buz-tana jaso eta onela diotza:

-Bederatziak eta ogeita bi minutu.

Aurrerago joanda, Otok eliztorreko ordularia ikusten du:

-Arraioa...! Ziur-ziur asmatu dik ordua iñungo errurik gabe. Astoaren ipurdiko zulotik nola asmatu ote du ordua ain xuxen...!

Joanda berriro Txilibristo'arengana:

-Nola asmatu duzu ordua astoaren isatsa jasota...?

-Orrela eliztorreko ordularia ikusten dudalako.



O T O T X O K O S M O N A U T A

Zortzigarren ikastaroan dabil Ototxo eta etorkizunera-ko prestatzen asi bear. Joan da aita irakaslearengana:

-Nere mutilla azkarra da, oso bizkorra; zer izango ote da egunen batean...?

-Kosmonauta.

-Kosmonauta, or goietan ibiltzekoa...?

-Bai, kosmonauta.

-Oi, zein eder...! Eta, zergaitik ori...?

-Ara: ikasgaia esplikatzen dudanean, orduan, illargian egoten da; galdetzen diodanean, berriz, lañoetatik erortzen.

G E R R A T E A N

Zanga eta errenetan sartuta daude gerratean. Or dator Oto munizioz betetako kaja aundi batekin eta komandanteari garraxi egiten dio:

-Komandante jauna, nun laga bear dut munizio-kaja au?

-Bajuago itz egin eidazu eta lagun bateri bezala; bada-kizu, aurreko oiek komandanteari botatzen diote lenengo tiroa. Ika egidazu lagun bateri egiten diozun antzera.

-Aizak i, zerri alena, nun arraio bota bear juat kaja madarikatu au?

O T O E T A M O I S E S

Andre Joxepa, Oto'ren emaztea, kiriotako sendagille baterengana joan zaigu:

-Ara, Jauna, nere senarrak, Liburu Santuak irakurri eta gero, pentsatzen du bera Moises dala.

-Ba! Ori ez da ezer; ez du betirako izango eta bereala pasatuko zaio.

-Bereala?

-Bai, bereala.

-Eta bitartean nola lortuko dut, baiñura doanean, baiñerako udak ez erdibitzea...?

* * *

Gero sendagilleak, agiri bat idatzi ondoren, esaten dio:

-Emaiozu emendik zortzi koillarakada egunero.

-Emendik?

-Bai, ortik.

-Eta, emen koilara nundik sartu bear dut?

-Emakumea, paper orretan ipintzen dizut zer erosi bear duzun eta andik eman.

-Baiña, alaz ere ez dakit lortuko dedan...

-Zergaitik ez?

-Zortzi koillarakada esan didazu eta nik etxian ez dauzkat sei koillara baiño...

SENARRARI ATSEGIN

Oto etxegintzan leporaño sartuta dabil. Etxeak egin ditu luzeak, tente-potente, odeietaraño. Bat emen, bestean, iru egoaldean, lau sartaldean...

Aizkenean, fakturak kamioka.

Gaur ernegatuta dabil.

Burua galtzeko arriskuan.

Mordo bakar batean, oietako ogei txartel ekarri dizkiote.

* # #

Ona izaten da etxean katu bat eukitzea, zapi esateko.

Katurik ez du Oto'k; baña, katu-faltan, antxe dauka andra Joxepa emaztea:

-Aizu, andre tentel, ori al da jazteko itxura?

-Zer du okerrik nere jantziak?

-Itxurarik eza.

-Itxurarik ez dutela, aurtengo berri-berriak izan-da...?

-Ez.

-Zer dute, ba?

-Parregarriak dirala, besterik ez.

-Parregarriak? Ta, zu zer zera ba, arlote, ao-zabal ori...!

-Auzoko Maalen ez al dezu ikusten...?

- Zer ikusi?
- Nola jazten dan.
- Nola jazten dan...?!
- Bai, nola jazten dan. Senarrari atsegiñ emateko moduan.
- Señarrari atsegiñ, orrek...?
- Bai. Orrek.
- Aizu, kompañeo, jantzi oiek iru urte ondo beteak dituzte, gero...
- Orixe esaten nizun ba, orixe eta ez urteero berriak.

ARIÑAGO IZAN BALITZ?

Oto kartzelan sartu dute.

Giltzapean.

Zergaitik, ote?

Kartzela-lagunak galde:

-Zer, Oto? Negozioak gaizki? Lur-jo al duk?

-Ez.

-Etxeren bat erori?

-Nere etxeak, oraindik beintzat, tente diraute.

-Tranpatxoren bat?

-Ez, ba.

-Bateren-bat, bai...

-Ez, jauna. Ni gizon prestua nauk.

-Gizon presturik ere izan oi duk kartzeletan; baiña, e-txegintzan eta negozioetan leporaño sartuta dabiltenak beste arrazoi-bide-batetik etorri oi dituk onera...

-Ez, ba; ni, ez.

-Zer izan duk, ba?

-Eta, euk, mozolo orrek, zer izan duk?

-Ba, ni onutza presa geiegi erabiltzearren ekarri nau-tek.

-Presa geiegi?

-Bai. Atso baldar bat eraman nuan aurretik. Eta, ik?

-Nik?

-Bai, ik.

-Ba, ni ekarri ninduten, presa gutxiegi eraman nuela-ko.

-Gutxiegi?

-Bai, gizon. Presa geiago eraman banu ez nindun guardia zibillak arrapatuko.



LOS RIOS MISIORAKO ESKABIDEA

Oto Ondarrun mezetan.

Misioharien eguna ospatzen eben elizean eta abadeak aldaratik:

-Gaurko eskabidea Los Rios'erako izango da.

Koru-azpiko Otok beste bateri:

-Onexeri bai gustora emango deusak milla pezeta-koa, ia ibaiak bein betirako garbitzen dabezen.

MOZKORTU ALA ZER?

Jakiña da, zenbat eta negozio geiago, ainbat eta artu-emon geiago. Bazkaria emen, bazkaria an, aparia bes-tean, Pototo leporaiño dabil. Lengo gabaz basoari eragin eutson neurritik kanpora eta apur bat naastu zan gauza guztiak biñaka ikusi arte:

-Au dok ederra, au, mundu osoa biñaka dabil bikiak bezela...!

* * *

Ertzaiñak geldi! esan deutsoe eta salakuntza egin.

-Mozkortuta kotxea erabiltzea arriskua da gizarterako. Illabete preso -diñotso Oto juezak Pototo'ri:

-Ni ez nengoan mozkortuta.

-Ezetz?

-Ez, jauna.

-Zer zeunkan ba?

-Ardau geiegi eranda; besterik, ez.

-Besterik ez?

-Ez, jauna.

-Orduan, giltzapean illebete egin ordeztu, ogeita amar egun egingo dozuz. Besterik, ez.

ARRAZOIAKIN

Lourdes'era joanak ditugu peregrinazioan erriko zenbait jende. Ango ikustaldiak amaitzerakoan, aizken egunean, onela esaten die elizako zuzendariak:

-Orain, atera eta agertu ekarri dituzuten erroario, medailla eta abar, bedeinkatzeko. Bakoitzak zer zeraman, uraxe bistaratu. Baiña, danen artean, eskuak utsik ditu Mari-Anton'ek. Eskuak utsik eta aoa zabalik apaizaren aurrean.

-Zer ari zera, Mari-Anton?

-Ortzak erakuzten.

-Asarre al zaude berorrekin, ortzak erakuzteko?

-Ez, ez nago asarre.

-Orduan, zer...?

-Ara, egin-berriak ditut ortzok eta beti austen ari zaizkit... Eta, bedeinkazioa auek bear dute, ez erroarioak...

ZALDI-LAISTERKETA

Oto'k txartelak erosi ditu zaldi-kinieletakoak eta Lasarte inguruan zaldi batek esaten dautso.

-Oto! Lenengo laisterketa-aldian neuk irabaziko dot.

Oto begira-begira eta zalantzan geratu jako.

-Arritu egiten al zara izketan egiten deutzu-dalako, ala?

-Ez, ez, orregaitik, ez, zuk lenen aterako zarala sinisten dozulako, baiña.

AUZOKO ANIXETA

Auzoko Anixeta, atso zaartuak, Pototo'ren dendan sartu eta arratoiak akabatzeko pozoia eskatzen dau. Bigaramonea or datorkio barrero irriparre gozoenarekin, esanez:

-Parkatu, jauna, emen dakarkizut barrero atzo eroandako pozoia eta emon egidazu dirua.

-Zer, ba? Arratoiak amaitu dira, ala?

-Ez, jauna, ez da ori.

-Zer da ba?

-Kasualidadez bart il dala, istripu batean, nire senarra...

ILDA GERO ERE.

Oto'ren ama gaixorik zegoan. Oso gaizki. Seme-ala-bak oe-inguruan. Ari dirala, eriotza artu dute izketa-gai eta berba-jario:

-Iltzen naizenean, badakizute il-jantzia nun dagoan...

-Bai, ama, bai.

-San Franzisko'ren Irugarren Ordenako kordioa ere bai...

-Bai, ama, bai.

-Gero, berriz, mezak, bederatziurrenak, urtebete-tzeak...

-Bai, ama, bai.

-Gero, urrena, andariak Joxe, Iixio, Praisku eta Peru izan ditezela...

-Ez, ama, ori ez.

-Zergaitik ez...?

-Orain ez du iñork gorputzik oiñez eramaten.

-Nola, ba...?

-Automobil beltz eder batean, ama.

-Baiña... ni mareatu egiten naiz, ordea...



TEATROA MERKE

Ur aundietako merkatuan sartuta dabillen ezkeroz, Oto munduan zear ere ibilli oi da. Andre Joxepa baldarzen doa eta ibillaldi oietarako etxean uztea erabaki du. Aldaketa onekin konturatuta dago emaztea eta onela ziotzan lengo egun batean:

-Asieran, kalean estropozo egiten ba'nuan, zuk onela esaten zenidazun: Alkateari esango diot kaleak konponzeko. Orain, berriz, Au atso baldarra esaten didazu.

Esaterik ondo ez ba'dago ere, Otok arrazoi, eta, ez dezala entzun gure jarduna andra Joxepak, naikoa baldartu bait da aspaldi onetan eta gauzak orrela izanik, obe du Otok berak bakarrik ibillaldia egitea:

-Nola arraio joan nitzake Parisera atzo baldar onekin...? Ez, obe degu bakarrik.

-Eta bakarrik joan zitzaigun Paris'ko etxegintzako tresnen erakusketara. An andre Joxepa aspertu besterik ez zan egingo; gaiñera, ainbeste andre panpox-politak dau den toki batera, nola joan andre baldar batekin...? Orrek itxurarik ez du, eta Otok itxurak gordetzen badaki.

Panparrokerian asita egon arren, poltza zeukan Otok naikoa ximur. Alaz ere, bein Paris'eraño eldu ezkeroz, irteeratxo bat egin bear gauez. Egunez etxegintzarako tresnen erakusketa ikusi eta gauez operara joatea erabaki du; bai ba, Ptoto'rekin ibilli ondoren, arrokeria eta aundinaia ez zitzaion gure gizonari falta. "Paillasuen opera" botatzen zutela eta, uraxe ikusi nai. Berak ere be-

re inguruan makiña bat paillaso esagutzen zitun. Aieta-
koren bat ote zan opera onetako Paillasoa?

Joan da Operara eta nekez ikasitako prantzez apur
arekin, galdetu ditu prezioak kutxatillaren atzetik zegoen
andratxoari:

-Zenbat diru...?

-Aurreko aukietan 100 franco berri.

-Eta, erdian?

-80 franko.

-Eta, goian?

-Goian aurreneko eserlekuetan 50 franko.

-Eta, atzekuak?

-Amar franko; programak, berriz, bi franko.

-Orduan, emaidazu programatxo bat eta zutik egongo
naiz bastartxo batean...

ESTATUTOA ETA BEIA

Estatutoa gora, Estatutoa beera, Estatutoa aldamene-
ra... Alde guztietan Estatuto sudurren aurrean. Estatutoa-
rekin soldauzka emen egingo dala, ori bai, Oto'k ori en-
tenditzen du eta poz ematen dio orrek. Baiña, orrekin
bakarrik ez du naikoa eta geiago jakin nairik, aldamene-
ko Prontxio billatu du. Onekin Pototo'kin baiño kon-
fiantza geixego ote duan ba arazo onetan... Pototo'k Es-
tatutoari iaramonik egiten ez dio; estratosferan dabillega
dirudi:

-Prontxio, Estatutoa zer dan azalduko al didazu?

-Bai, gizona; ori besterik ez ba'da...

-Neretzako ba-da naikoa.

-Tira ba. Zuk eta Pototo'k ikuilluak edo kortak alkarren ondoan dauzkazute...

-Bai, bai. Paret bat erdian.

-Egin dezagun paret orretan zuloa eta ipiñi beia agoa zure kortan eta errapea Pototo'ren ikuilluan.

-Ori astakeria...!

-Ba, orixe da Euskadi'ren gaurko egoera: agoa du emen eta errapea Madrid'en.

-Eta, Estatutoa?

-Beiaren errapea osorik Pototo'renean egon bearrean, errape-erdia zure ikuillura pasatzea da Estatutoa.

-Joiño! Ori ez zegok ain gaizki...!

-Ba, errape osoa eta aginpide osoa Madrid'en dago; Euzkadi'ra errapearen erdia eta aginpidearen zati bat pasa.

-Eta, Madrid'ek naiko du ori?

-Ez baiña, beartuta egiten du.

-Aizu, Prontxio, errape erdia ez al da gutxi? Nik errape osoa nai nuke...

-Bai, ohea litzake errape osoa. Osoa pasatzeko, ordea, lenago erdia pasa bear da.

-Bai, ori ere ala da. Batez baiño geiago. Lenengo erdiari eldu, gero beste erdiari kolpe egiteko.

-Ondo pentsatzen dek, Oto.

-Zer ba...? Nik ere ba-det Estatutoari baietz esateko ai-
ñako burua...

SOLDAUZKA ESTATUTOAREKIN

-Aizak, Pototo, entzun diat Estatutoarekin soldauzka
emen bertan egingo degula, kanpotik ibilli gabe.

-A ze gauza! Txarra al duk emendik kanpora ibiltzea?
Badajoz eta oiek nola ikusiko dituk ba bestela?

-Ba-dakik, erdera gutxi eta etxetik urrun ezbear asko,
gastuak ere...

-Oto iñuxente, ikasizak erderaz eta orrela ez duk Esta-
tutoaren bearrik.

Pototo'ren jakinduriakin gelditu da Oto laiño artean.
Erdera ikasteko astirik ez, etxetik kanpora soldauzka
egiteko gogo gutxi, Estatutoa oraindik ez... Zer egiñ?
Melilla polita izango da, baiña Donostia'n naiago. Bolun-
tario joatea erabaki du.

-Aizak, Pototo, soldauzka egiteko, gudarostean lanik
erosoena nun izaten dan ba'dakik?

-Jakingo ez diat ba? Estado Maiorrean. Ori edozein
iñuzuk dakien gauza duk.

Joan zaigu besterik gabe Oto gizajoa Donostia'ko Caja
de Reclutas'era. Jo du atea ukabillakin:

-Adelante! (Barrutik abots lodi batek). Que quiere usted?

-Entrar soldau boluntario.

-A ver tu, Fermin, atiende a este aldeano. (Sarjentoak ango eskribiente bateri).

-Zer nai?

-Soldauzka Donostia'n egin.

-Infanterian? Zapadores'etan? Nun naizu...?

-Nik, Estado Maioarrean.

-Estado Maiorrean? Baiña, zertan?

-Al bada, koronel.

-Zoratuta al ago?

-Zoratuta egon bear al da koronel izateko ala...?

ESTATUTOARI BAI TRAJE BERRIAKIN

Oto ez da goi-maillako gizona, gizon prestua izanik; baiña, ba-du erritarteko sentzuna eta Estatutoari baiezkoa emateko, txamarra berri bat erostea erabaki du. Ez, ordea, eginda saltzen diran oietakorik. Jostun b[^]tek egi-fta bear. Bai al da gaurko egunez jostunik? Pototo jakintsuak jakingo du iñork jakitekotan.

-Aizu, Pototo, txamarra eder bat egin nai nuke eta ezagutzen al dezu jostunik alamoduzkorik?

-Ni beti egoki jazten naiz eta ba-dut Erregeari bere jantziak egiten dion jostuna. Proveedor de la Real Casa da berori.

-Nun degu zorioneko jostun ori?

-Joan ari Donosti'ra Esterlines karrikan...

-Korrika?

-Kalera, jebolandio. Ez duk ezer konprenitzen. Karrika, kalea duk.

-Nik beintzat korrika entenditu dizut... Barkatu eta karrikara korrika joango nazaizu.

#

Urrengo batean, orra or nun topo egiten duten alkar lagunok. Pototo'k:

-Traje berria egin duk, Oto...

-Bai, karrikako jostunak egin zidan. Korrika joan nintzan arek. Gogoratzen?

-Gogoratuko ez nauk, ba...? Proveedor de la Real Casa. Esango ziñun nik errekomentatuta joan ziñala, e?

-Bai, bai, ala esan nion, bai.

-Eta...?

-Zera... egin-aurretik kobratu zidala trajea...



MITINA

Mitiñak berriro asi dirala-ta, Oto pozik asko joan zai-gu jai-arratsaldean erriko enparantzara. Bere gastearoko zer aiek oraindik gogoratzen ditu.

Plazan izlaria bla, bla, bla...

Oto'k berekiko:

-Elizeetan sermoiak gutxitu diranean, orain, berri-z, erriko plazan... Berriro ere oitura zaarretan gaituk.

Sermolari berriak:

-Egun, gorriaren ordua iritxi duk.

-Ori, ori! Egun eta gau! Euskaldunok odola gorri-gorria zeukaguk; ez, beintzat, beste aundiki oien antzekoa. Ori, ez. Odol urdiñik, ez!

-Dena gorri-gorri izanen duk...

-Aizu, sermolari, gure mendietako orlegia errespetatzekoa duk.

-Orlegiak zera zeratzen du. Ertsi estua.

-Eta, zuria?

-Orrek areago. Gurutze guztiak fatxistak dituk.

-Fatxista? Eta, lauburua...?

-Ori, geien.

-Zergaitik...?

-Fatxista eta razista dalako. Gu, berriz, orokorrak gera...

-Orokoskor... zer?

-Orokortasuna...

-Zer...? Kozkorrak ote ditugun...?

-Bai!

-Bo...! Ototxo bizi dek, beintzat, eta...

-Zuen atzerakoitasunak...

-Zuen bai atzeratuak. Zuek, gorri edo urdiñ, aurrekoari eutsi nai.

-Lengoari, ez; aurrerakoari, bai.

-Bai, bai... Zuek leengo eran gure beia eduki nai: agoa gure ikulluan eta errapea zuenean.

-Zer?

-Tok!

Basoari eragiñ zion indarrarekin, ia beatza aidean eskapatu zion.

KEIA DARIOLA

Oto beti muturretik keia dariola.

Orbegozo'ren labe aundiko tximiniak baño geiago.

Andre Joxepa etzan konprome abelera arrekin eta sendagillearena eldu zan:

-Zer dezu, Andre Joxepa.

-Zera, gure senarra beti tabako-keia dariola dabilkigula...

-Bere aien biriketako ez da ba ori gauza ederra...!

-Orregaitik, ba...

* * *

Maiko kajoiak aztertu ondoren sendagilleak Andre Joxepa'ri:

-Emaiozu pildora auek: eguerdian eta apaltzerakoan.

-Baña, zertarako diran jakin gabe ez ditu artu naiko...

-Ez esan...

-Eze esan gabe gutxiago oraindik... Beorrek ez du nere senarra ondo ezagutzen...

-Ba, orduan, sopakin nastuta eman... Ez dio iarriko...

-Bai, orixe egingo det, ba.

* *

Andik aste betera:

-Artu al ditu agindutako pildorak...?

-Goiz da arratzalde, sopatan...

-Ta, tabako erretzeari utzi al dio...?

-Ez, jauna: sopa artzeari utzi dio.



Maite Otoren amonaxoa degu. Larogeita amar urte beteak. Gaur larri jeiki zaigu oetik:

-Zer dezu, amandretxo? (Otoren emazteak)

-Tripako miñez nengonan...

-Ori ez dezu ezer. Kamamilla apurtxo batekin sendatuko zera.

Artuta gero

-Ene...! Au den lasaitasuna...!

-Zer, dala-ta?

-Pixu aundi bat kendu diñan gaiñetik.

-Zer ba?

-Aurdun nengola uzte nifian.

Urrengo egunean auzoko bixita du amandreak eta bixitekin beti izan da oso begiratua: onela diotza erreinari danen aurrean:

-Emaiezute oieri galleta edo pastel batzuek.

-Baiña, ama, etxean ez degu orrelakorik...

-Eurak ekarri dutenetik eman...

-Ez dute ezer ekarri.

-Auxe den bixita legorra!

A zan lotsa!

O T O T X O

Otok bere seme Ototxo akolito sartu dau elizan, akolitoak aparteko grazia daukelako eta bertan burua argitzen jakelako.

Auzoko zurgina il da eta Meza amaierakoan, aldarapean "Libera me" abesten dagozela, abadeari betaurrekoak jausi jakoz lurrera. Ototxok jaso ditu lurretik; baiña, apaizari emon baiño lenago, paltrikeratik musuzapia atera, oso zikiña egoan, eta berarekin betaurrekoak garbitu dauz.

Sakristira eldu diranean Ototxok abadeari.

-Aizu, antiojuak garbitu dautzudaz.

-Bai. Eskerrak.

-Ez dakizu zergaitik?

-Ez.

-Lurrean mikrobioak artu ebezan eta orreik zure begietan sartu ezkeru, zer...?

-Eskerrak milla bidar, mutil.

Illerritik elizara datoztela mutikoak abadeari:

-Aizu, zenbait urte falta jatzuz ilteko?

-Zaarra al naiz, ba?

-Bai, oso zaarra. Eta zenbat urte falta jatzuz?

-Zer, ba?

-Nik zure entierroa joan nai nuke-ta...

-Ordurako aaztuko zara.

-Ez, ez, ez naiz aaztuko; promes egiten dautzut.

#

Ototxo egunero joan oi da aszensore edo goragaillu batean amabigarren etxe-oiñera-arte. Baiña, beste lagunik ez ba'dau, zazpigarrenean urteten dau.

-Eta, zergaitik egiten dau ori?

-Txikia izanik, zazpigarren botoiraiño bakarrik eltzen dalako.

Ototxo kontu-kontari dabil. Onela diñotso bere lagunari:

-Itxas-ontzi batean 15 mariñel dagoz, makinetan 10 lagun, kubiertan 8 eta gaiñera sukaldaria eta txo. Zenbat urte ditu kapitanak.

-15 eta 10 eta 8 dira 33 eta beste bi sukaldean, 35 urte.

-Ez.

-Zenbat ba?

-Berrogeita bost.

-Eta, zelan dakizu ori?

-Berak esan daustalako.

#

Ariari eldu dautso eta aurrera:

-San Asensio'ko alkatearen amak Maria dau izena; aitak, berriz, Jose; bere osabak Prantxisko eta izekok Juanatxo, zelan dau izena alkateak, berak?

-Maria eta Jose ba'dira gurasoak, bera Jesus izango da...

-Ez.

-Zelan ba?

-Plorentiño.

-Eta, ori nondik asmatu dozu?

-Nik ez dot asmatu.

-Nondik dakizu, ba?

-Berak esan daustalako.

Oto aitaren argiz jantzita dabil munduan gure Ototxo.

ITURRIGORRIKO SANKRISTAU A

Gizon melarra zan; txikia baiña bizkorra eta berakatzalez piña. Beti arin-aringa. Bein eldu jako Ototxo beretzako enkargu bategaz. Sankristauak Anton Potxo eban gaitz-izena eta mutillak jakin ez. Gerturatu jako onelan esanez:

-Entzun, Anton Potxo.

Asarratu da sankristaua eta asarre bizian diñotso:

-Nor naiz ni?

-Anton Potxo.

Sankristauak abotsa gogorrago:

-Nor naiz ni?

Mutilla izaturik eta apal:

-Don Anton Potxo.

Gizonak zeruraiño abotsa jasoaz:

-Baiña, nor naiz ni...?

-Señor Don Anton Potxo.

Emon eutson belarrondokoakin gortu eutson mutikoa-
ri belarria betirako.

-Ez dakizu Anton Potxo gaitz-izena dala?

-Ez, jauna, gaitz-izena Txilbristo dozu.

GOIZIK

Larunbat arratsaldetan irtentzen zuan Otok etxetik; baiña, noizko bueltatu? Andre Joxepak ezin zuan bere senarrarekin burutu: beti asarre berandu etorri eta sekulan ez zalako oitik jeikitzen.

Goiz artan Otok alai zebillen bere bizarra kentzen. Andrea gerturatu zitzaionean, onela diotza Otok:

-Andratxo, gaur ez zera asarre egongo berandu jeiki naizelako...

-Arpa jotzera al zatoz?

-Arpa jotzera? Ez, andratxo, ez.

-Zertara, ba?

- Ara nere erlojuak zer dion: bederatziak puntuan.
- Bederatziak puntuan, eta zer?
- Goiz dala, emakume. Jai-eguna eta goizeko bederatziak...!
- Bai, bederatziak bai; baiña, jaia atzo zan eta ez gaur. Gaur astelena dezu...
- Eneee...!

POLTZA ALA BIZIA

Buru azkarra baiño ohea dala diote biotza zintzoa eta borondate ona. Au ezitzaion palta gure lagun Oto'ri; ura, ordea, buru bizkorra, zenbaitek dudan eta zalantzan ipiñi oi dute.

Bateren batek bazuan Oto'renganako uste ona; orregaitik eman zizkieten milloi bat pezta larruzko kartera batean Donostia'ra eramateko.

Beren kartera ori eskuan zuela bazijoan gure laguna arro eta tantaia bezin lerdin; baiña, orra bidexka batean, arma eskuan zuela, gizaseme bat agertu:

- Poltza ala bizia!
- Poltza, motel, bizia baiño lenen.
- Ekarri, ekarri...!
- Tori diruok; ordañetan mesede bat eskatuko nizuke.
- Zer da? Azkar esan...
- Dirua artu zazu eta poltza neri laga.

-Ori besterik ez ba'da...

-Beste gauzatxo bat: poltza oneri tirotxo batzuek bota egizkiozu. Orrela, zuloak ikusita, jakingo dute nere nagusiek arrapatu egin didatela dirua.

Otok eskatu bezela, ekin zion tiroka larruzko karterari. Bost zulo egin zizkion, beste balarik ez zuelako pistola arrek. Orduan Otok, patxara ederrean, atera kolkotik bere pistola eta onela esan zion gaizkilleari:

-Gora esku oiek. Dirua bere tokira eta ator nerekin orain...

Gero esango dute Oto gizarajoak ez duela argirik bere kaskarrean.

GOSEA KENTZEKO

Bodegoi zaareko mai luze batean zeuden Pototo, Oto beste lagunekin. Pototo, ilustraua zanez, aldizkaria irakurtzen asi zan. Erderaz, jakiña; euskaldunik ez zuan irakurtzen da. Egon ere ez. Gerrateko berri beltzak ziran: Frantzia, Ingalaterra eta Alemaiaren arteko gerra zitala. Alemania ito bearrean zeukaten beste guztien artean. Pototo irakurtzen:

-Alemania pide la pas.

-Ez zeukie gosea makala-Otok erantzun-lapak eskatzeko. Igeldo'pean ba daude makiñatxo bat. Etorriko ba'lira...

OTO KURSILLISTA

Pototo, kale-umeak, Oto baserritarri:

-Ik ez dakik euskararik, ez dakik gramatikarik eta gaueskola bearrezkoa duk iretzat euskaraz ikasiko ba'duk, nik ikusi diat iri gazki itz-egiten, zeren personalki ez duk euskaraz ondo mintzatzen.

-Bai, bai, guk baserritarrok ez dakigu ezer. Ikusi zaitut esaten degu guk, ez ikusi diat... Ez, ez dakigu ezer.

-Zuen euskarak ikullu eta korta-usaiña galanta. Ez gramatikarik eta ez ezer. Sekulan izan aiz euskarazko kursilloetan...?

-Ez, ez, ni ez. Oto suminduta eta apalduta.

-Sekulan izan aiz kursillista...?

-Ez, ez naiz kursillista izan; izatekotan ni kursitonto izango nindukek.

-Orra, ba, egundo kursillorik gabe ez daukat euskaraz ezer esateko deretxorik. Agiria eskuan bear da, ondo jakiteko. Ik ez duk ezer.

-Nik etxean bakarrik ikasi det euskeraz.

-Eta ire etxean zer zekitek ignorante analfabeto batzuek besterik ez diran oiek? Sekulan euskarazko kursillo batera joan ez dira eta mendiko larrak erretzen besterik ez dakiten oiek...!

-Bai, guk larrak erretzen ume-umeetatik ikasi izan degun gauza da; baiña, euskerazko kursilloak guk neguan suaren inguruan egiten dituguz sukaldean.

-Eta, zein duzute irakasle? Kortako astoa irakasle arrantzaka eten gabe; orixe izan da beti zuen irakaslea. Zientifikoki ikasi bearko duzute euskara euskaraz ezer jakin nai ba'duzute.

Oto gizarajoa joan zan gaueskolako oietako "kursillo" batera. Irakasleak euskaldun berriak ziran eta kurilloak egindako paper-agiria bazuten beintzat. Bat eta bi ere bai.

Andik irten eta etxera eldu zanean aitari esan zion:

-Amari ikusi diot ferian...

-Zer ikusi diok amari? Anka-ezurra ala zer...?

-Berari ikusi diot.

-Ori al da kale-umeez erakusten dizuten euskera...? Orretarako obe batere ez joatea.

-Bai, neri esan didate gure euskerak ikullu eta korta-usaiña eta atsa duela galanta eta analfabeto utsak besterik ez gerala.

-Gu analfabeto izango gaituk, baiña euskaldunak. Eta zuen zenbait irakasleek erdaldun-kumeak dira: erderaz egiñak, erdera buruan eta euskera ezpañetan. Ortik, naaste orretatik, zer euskera aterako dala usten dek...?

-Ez, ez, aita, gu gera iñuzuak. Oiek eskolatuak dira eta kursillo pilloa egiña daukate eta guk batere ez...

-"Kursilloak" eskola izango dek eta eskola bearrezkoa da. Guretzako ere bai. Guk, ordea, amaren bularetik edoski genduan euskera euskeraz. Ikusi izan ditut emen itxas-ertzean, baserrietan euskeraz ikasten; baiña, aien euskera eta gure erdera, antzekoak; biak bizkiak... Gure etxeko unibersidadeak millaka urte ditu euskera lantzen

eta bertan sortu zan, eta karabinero batek neri euskeraz erakusteko majo aldatu bearko dik bere burua... Bitartean "euskara" ori euskeraren azala besterik ez dek izango. Bear ba'da, orrentxe billa ibilliko dira: erderaz egindako buruak geienak izanik, buru-toleste oietan euskera jatorrik ez dalako sartzen, buruak euskaldundu bearrean, euskera erdaldundu eta danok pozik. Orretarako gure euskera jatorra estorbu bat besterik ez da...

Oto gizarajoa gelditu zan lenago baifio okerrago. Aurrapenak kalean izan oi dituk eta atzerapenak base-rian. Eta, euskera arloan, ez...?

"Zertan dan, zertan dan..." erantzun zion sorgiñak aldamenetik.

ERDERAZ IKASTEN

Oto eta Pototo famili onekoak Euskerari buruz. Diruari buruz, berriz, Pototo zan aundiki izandakoa; Oto, ordea, arlotea jaiotzetik eta famili eskasekoa, ez jan eta ez lan; bizi al zan moduan...

Euskaldunak biak.

Jatorri-jatorrikoak.

*

Euskalerrria sei probintzietan mugatzen danez, esi motza du munduan eta or zear ibiltzeko beste izkera bat bear zutela, erabaki zuten. Gaztelera ikasiko zuten.

Opor-aldiak ziran eta egoaldera jo zuten.

Despeñaperro'tik beera abiatu ziranean, orduantxe gogoratu ziran, Kanpaindi'ko Praisku lazkaotarra ortik ibilli zala soldadu. Arrek bai erdera ikasi zula, arek... Bere etxe Kanpaindi'ra idatzi zuan gurasoeiri adierazteko zer gauza arrigarriak ikusi zitun egoaldeko erri nagusi aietako batean. Onela zion:

"He visto kales luzez-luzez Urbaundi-mendi bezelakoes; txerris beltzaz-beltzaz y txerrizaiñes con sombrero".

Orra zertzuk arritu zuten Lazkao'ko baserritarra.

* * *

Oiek gogoratzen ari dirala, orra nun alkornokedi batean txerri beltza eta txerri-zainak kapelakin. Auek dituk Kanpaindi'ko Praiskuk ikusi zitunak. Arrek ainbeste erdera ikasi ba zuan lurralde auetan, geuk ere aprobetxatu egin bearko degu. Pentsatu eta egin: doscaballosa gelditu eta euregana abiatu ziran buruko kezkak arintzearren, ez bait zekiten zer alde zegoen estrujar eta escurrir aditzeen artean.

Kapeldun txerrizaiñak muki-zapi bat artu, udetan buzti eta eskuetan estutu ondoren:

-Esto es estrujar.

Ondoren bere esku zabalakin burua joaz:

-Y escurrir se escurre con esto.



ARDOAREN OKERKERIAK

Beti izan oi da lagun txar-gaiztoen errua... Bestela gu onak giñazke lagun txarrik ez ba'lego, artarako aukerarik ez ba'lego, feririk eta azokarik ez ba'legoz. Azoka ondoren, ardoa; ardoaren ondoren nabarmenkeria.

Orra Oto eta Pototo bikotea, kalean zear, lepotik elduta, nun dabiltzan ez dakitela. Kale arreri ez diote antzik iñundik artzen. Jakiña da, Santo Tomasak alde bate-tik, azoka eta dema bestetik, ainbeste komeri aizkenean ardoz leporaifio. Gero, gerokoak:

-I, au ze kale dek?

-Nik ez zekiat, motel.

-Zea, letreroa or zegok ziri baten gaiñean ipiñita.

-Orrenbeste nik ere ikusten diat.

-Biok alkarri lagunduta, nik bultza eta i igo, ikusi dezagun zer dion.

Ala egin zuten: Pototok bultza eta Oto goraka igo festatako Sanjuan-arbolan bezela. Elduda goraiño:

-Zer kale dek-Pototok azpitik.

-Au ez dek kalea.

-Zer arraio da ba...?

-Letrero bat.

-Ez al dik kale izenik ipintzen...?

-Ez.

-Zer ipintzen dik, ba?

-Cu-i-da-do con la pin-tu-ra.

Zirkoko paillasoak ziruditen biak.

Z E I N A S T O A G O

Periko Fortuna makurra zan. Periko Fortuna astoa degu: asto-astoa izan ere. Oto eta bere Periko Fortuna iriñetan joan bear zuten errotara.

Erroteetan beti izaten da zubiren bat. Zubi azpitik ura. Errota-Txiki'n ere alaxe zegoan eta errotatik iriña ekarriko ba'zan, zubitik pasa bear nai ta nai ez.

Egun artan, ordea, ego-aizeak jota edo, Periko Fortuna ez zala zubitik pasako. Oto'k baietz, pasako zala. Eztabaida latza zubitxoaren ertz batean.

-Tok! Pasazak erorrek-zion astoak.

-Pasa bearko dek! Arre, arre, arre...!

Arre bakoitzeko Perikoren bizkarra berotzen zuan Oto'k makilka. Baiña, Periko Fortuna makurgaitza izan eta ez zan iñola ere mogitzen bere artatik.

Makilkada bakoitzeko, Periko areago ezetzean.

-Enauk, ba, teman irabaziko. Oraintxe ikusiko diagun zein dan astoago...!

Sartu da Oto astoaren tripapean, sorbaldan astoa artu eta tapa, tapa or dijoa beste alderaiño.

-Neri Periko Fortunak ezertan irabazi...? Ez orixe. Aupa, neu kanpeon!

Z O R I O N A K

Andra Joxeparen lagun bateri aita il zaio Donostian. Topo egin du andre orrekin Otok, tabernatik irten da gero. Ardoaren alegrantzia du barruan; baiña, oso kunplítua izanik, bere samiña agertu nai dio:

-Jakín det aita il zaizula.

-Bai, ba, ortarako jaio giñan, iltzeko. Zer egingo diozu? Tokatzen zaionari tokatzen zaio, eta abar, eta abar.

Aizkenean eskua ematen dio esanez:

-Zorionak, e, zorionak.

A R R A N T Z A N

Pototo amorrainetan joana dugu Errioxa aldera. Etorri danean Otok galdetu:

-Zenbat amorrain arrapatu dituk.

-Amorrainak 699-

-Amorrainak ala eskaluak?

-Amorrainak eta ederrak, ala ere.

-Zergaitik ez duk 700 esan? Borobillago legoke.

-Amorrain bategaitik nola asiko nauk gezurretan...!?

* * *

Pototo'ren arraiketa ezagutu ondoren, Oto ibaira doa arrantzara kaiñabera luze bat eskuetan duela. Arbola-azpi batean eseri da, bota du kordela eta an dago kortxoari begira.

Artan ari dala, inguratu zaio mutil gazte bat. Eta, jantzita zegoan bezala, bota du bere burua udetara.

Otok bere kaiñabera laga lurtean eta udetara salto egin du mutilla ateratzeko. Bigarren aldiz mutilla udetara. Bigarren aldiz, Otok atera. Irugarrenez mutilla udetara eta irugarrenez Otok atera.

-Nik il nai dut. Nik il nai dut...!

-Baiña, ain mutil gaztea eta sasoikoa izanik, nola arraio il nai duzu...?

-Nik il nai dut...!

-Zorokeri oiek kendu burutik. Bizia ederra da.

Mutillak bere gerrikoa kendu eta adar batetik bere burua esegi du zintzilik. Oto arbolapean zegoan eta arbola artan, ain zuzen. Aldameneko zubian begira zeuden batzuek etorri dira arin-arin korrika, arbolatik zintzilik zegoena askatzera. Ekin diote Oto'ren aurka bizi-bizi:

-Iru alditan atara duzu udetatik gizona eta orain, be-
eriz, bere burua urkatzen utzi diozu...?!

-Urkatzen? Nik usten nuan, damututa, bere burua le-
gortzern ari zala.

OTOTXOREN PROLEMAK

Gaur urduri agertu da etxean Ototxo eta aita aldamen batera eraman eta ekin dio:

-Aitatxo, aunditzen ari naiz eta zure laguntza bear dut bizitzako zerari aurpegia emateko.

-Bai, semetxo. Nundik asiko gera?

-Artatik asi.

-Lorak nola sortzen diran...?

-Loren ajolik ez dut.

-Erleak nola ugaritzen diran...?

-Erleen ezitia asko gustatzen zait; baiña, erleen ajolik ez dut.

-Zer duzu, ba?

-Nere korapilloa eta prolema latzagoa da.

-Bai...?

-Bai, orixe.

-Esan, esan...

-Zazpi urte bete ditut eta nere jaietako betebearrak bost durokin nola nai duzu ondo betetzea? Gutxienez amar bear ditut.

PILATO-ALARGUNAREN EZKONTZA

Andre Joxepak Oto'ri:

-Jesus, Jesus, emen entzun bear diranak...!

-Zer da ori?

-Jesus Madalena'kin ezkondu zala ez dit ba aldameneko Jerontxiak esan...!

-Ori Beizama'ko sakristauaren kontua bezala izango da.

-Zer kontu?

-Ara, andratxo, Beizama'ko sakristaua musulari oso ona zan; baita bersolari ere. Irudimen aundiko gizona.

-Eta, zer gertatu zitzaion Beizama'ko sakristauari?

-Bazkalondoan, musean egin ondoren, Bezpera eta Errosario santura joan bearra izan zuan igandero bezala.

-Antolamentu ederra, musetik Errosariora...

-Dana dala, bezpera ondoren ari zan erretorea Errosario santuarekin eta bigarren misterioan, sartu da elizan, estu ta larri, Errotaxiki-azpiko mutil nagusia: Jauna, nere aita oso gaizki dago eta joateko bereala, esan zion atehondotik garraxi batean...

-A zer formalidade eskasa, orrela elizan garraxika ateko!

-Jaitxi zan apaiza pulpilotik eta sakristauari agindu zion bera etorri arte segitzeko errosarioari. Zaldia ikuillu-

tik atera eta tximistak artuta bezala abiatu zan erretorea gaixoarengana. Gauzak uste baiño larriago izan eta erretore jauna luzatu egin zan...

-Eta, bitarte orretan sakristauak museari eldu zion ala bersotan asi...?

-Amabost misterioak amaitu zitun eta, bersolari ona izanik, imdimenik falta ez, segi bere artan misterioak asmatzen...

-Asmako zitun asmatzekoak...!

-Erretorea elizan sartu zanean orduantxe asi ogeita amaimgarren misterioa:

Pilato'ren alarguna Nikodemus'ekin ezkondu zane-koa...

-Ez zeukan imdimen gutxi...!

-Zure lagun Jerontxiak aña ez...



NOEL, OLENTZARO, ERREGEAK ETA
ZALDI-GOROTZA

Mateo ebanjelariak diñonez, Jesus jaio-barria zala, Mago batzuek, aztiak, etorri ziran aurrari agur egitera. Etorri ere eguzkia sortzen dan aldetik etorri ziran.

Jesus'i erregaliak eskeiñi eutsoezan urrea, intsentzua eta mirra. Balio audiko iru gauza orreitik, erriak Magoak errege biurtu ebazan, kristau alderdietan.

* * *

Gabonak eta Eguzkiaren barritzea alkarrekin doaz: Egu-berri, argi-berri da-ta. Orrekin buztartuta, Noel agertzen da Europa Iparraldeko errietan. Gizaseme zaartua eta oso ona, umeeri erregaliak ekartzen dautsezena.

Zenbait tokietan Noel, Santa Klaus edo San Nikolas biurtzen dabe.

* * *

Euskaldunen artean, barriz, Olentzaro jauna dator Eguberrietan Jesus'en jaiotzaren barri emotera. Orra Olentzaro'rekin San Klaus, San Nicolas, Erregeak eta Noel.

Arritzekoa auxe da: Olen-tz-aro, Olen'en aroa dala dirudi, aur-tz-aro eta zaar-tz-aro aurren eta zaarren aroak diran lez; Olen eta Noel izki edo letra bardiñez egiten diran berbak dozuz.

Olen-tz-aro Noel-aro ote da?

Dana dala, Gabonetan Noel'ek eta Olentzaro'k, eta Epifami edo Agerkunde egunean Erregeak umetxoeri, eta baita nagusieri be, Jesus'i bezala, euren eskeintzak egiten, deutzeez.

Ona zer gertatu zan erregali orreikin etxe batean:

Bi seme, ebezan; bata oso lur-jota ebillena beti, oso pesimista.

Besteak, berriz, ez eban lurrik ikusten, beti aidean, optimista utsa. Baikorra oiñetatik burura.

Eldu zan erregalien eguna. Gabon eguna zan ala Errege eguna? Orixe ziur ez dakit. Jo dagigun aurrera. Senar-emazteak alkarrekin berbetan:

-Gure seme triste oneri gauza eder bat ipiñiko dautsagu, ia apur bat alaitzen dan.

-Zer ipiñiko?

-Nik eskumuturreko urrezko ordulari eder bat ipiñiko neuskio. Zer deritxozu, andratxo?

-Ondo dagoala ori. Orrelako pitxi eder bategaz biotza alaituko jako eta animoa gora jasoko.

-Bai, ori berori egingo dogu.

-Eta, beste txintzarriari zer?

-Edozerekin konformatzen da. Orrentzat dana da eder eta ona.

-Begira, zaldiak egiñiko gorotza daukot aundia eta zabalakortan eta berau ipiñiko deutsagu oiñetakoan ondoan.

-Probetxuren bat atarako dau, zalantzarik gabe.

-Ikusi daigun zer joka-bide ataratzen daben bakoitzak.

Gurasoek esan bezala egin eben: bateri urrezko erloju ederra eskumuturrerako eta besteari zaldi kaka-plasta aundi bat.

Etorri da goiza egunsentiaren argitara. Jaso dau batek urrezko ordularia:

-Baiña, nik orrelako gauza eder bategaz zer egin bear dot? Eta, arrapatzen ba'deuste? Eta, galtzen ba'dot? Eta, apurtutzen ba'jat? Eskolan barre egingo deuste onelako erlojuakin ikusten ba'nabe...

Akatsak eta arantzak besterik ez eutson pitxi eder arreri topau gure mutil koitaruak eta gijajoak.

Eldu da bigarren semea leiora. Zaldi-gorotza oiñetakoan ondoan:

-Zer, Oto-diñotso kaletik Peru'k-zer ekarri dautzue Erregeak?

-Ez, Olentzaro izan da.

-Eta, zer ekarri...?

-Zaldi eder bat; baiña, bertan kaka egin eta alde egin daust. Etorriko da.



PRAILLEA ETA EPERRAK

Joxepa, eskongaia zalarik, erriko Erretore jaunaren etxean zegoan neskame. Praille bizardun sermolaria zeukaten bazkaltzeko. Orrelakorik zanean, Erretore jaunak beti prestatzen zuan mokautxoren bat, goxo-goxua, praille gizajoari gosea asetzeko.

Ala gertatu zan egun artan ere: eguerdirako eper pare zeukaten ederrak.

Kasualidadea izanen da baiña, goiz artan Oto, Joxeparen senargaia, etorri zitzaien soldauzkatik eta asmoa zeukaten gabeen zelebratzeko apari eder batekin Poto-to'ren alkartean. Orretarako gauza egokiagorik eperrak baiño, zer? Otok andregaiari:

-Joxepa, eper oiek eman bear dizkidazu apaltzeko...

-Eman? Nola?

-Ala, neska.

-Eta zer esango du Erretore jaunak?

-Zuk izkuta eitzatzu eta asmakizunen bat sortuko degu bitartean, konturatu ez dediñ zertan ari geran.

-Asmakizuna asmatzen ba'degu, gordeko ditut eperrok.

Pozik eldu zan Oto lagunartera. Bi eper, alajaiñetan, apaltzeko. Eta, nolako eperrak...! Orain katu bat arrapatzea falta zan. Orrela osako zuten aparia: erbia eperrakin.

#

Otoren laguntzarekin, laguntza aundia ez ba'zan ere, Joxepak asmatu zitun asmatzekoak. Esan dezagun aurretik zer oitura zuan Erretore jaunak: jaki batetik bestera denbora luzetxo pasatzen ba'zan, kutxillo bi artu eta alkar zorrotzen asten zan. Aiztoak alkarrekin ateratzen zuten soiñuakin konturatzen zan Joxepa Erretorea zai zeukala.

Bazkaldu aurretik, Joxepak praillea bere kontura artu eta onela esan zion:

-Ara, jauna, gure nagusiak berealdiko kasketaldiak izan oi ditu, ilgoran batez ere eta ilgoran gaude. Erne egon, gaur aldakaitza sumatu diot-eta.

-Zer esaten didazu, andratxo?

-Berorrek entzun duana, jauna.

-Egia da aldrebeskeri ori?

-Bai, bai eta nik ez nuke nai, nere kulpaz, berorreri okerren bat gertatzerik.

-Okerra neri?

-Bai, jauna.

-Eta, zer oker?

-Aldizka belarriak moztea gustatzen zaio, euskaldunok oso aundiak omen ditugu eta.

-Belarriak moztu, alazankoa! Nola igarriko diot arriskuan ba'nago...?

-Erreza da: goibel jartzen ba'da eta kutxilloak zorrozten asi, anka arin-arin laisterka; bestela berorren belarrien errukia...!

Batzuri-zopa jan zuten asteko. Gaiñerako amorraiñak. Praillea orrenbestekin konprome zan; baiña, Erretorea eperren zai zegoan; eperrik, ordea, agertzen ez. Egan egin ote zuten, pentsatzen zuan berekiko. Joxepa geldi sukaldean, etorkizunaren zai.

Aspertu zanean, Erretoreak artzen ditu mai-gaiñetik bi kutxillo aundienak eta alkar zorrozten asi zan txoroskilerorik onenak baiño obeto. Prailleari jandako amorraiñek urdailletik gora zetorzkion agoraiño. Erretoreari begira-begira geratu zitzaion, zoratuta bezela; gero, bat-batean jeiki eta irten du korrika bazkal-gelatik.

Erretorea zegoan arri-ta-zur prailleak nundik alde egin zuan begira.

Sartu da andre Joxepa estu eta larri.

-Zer du orrek, Joxepa? Erotu egin al da? Zoramenak eman al dio?

-Zoramen ederra du orrek...

-Zer, ba...?

-Eperrak sukaldetik arrapatuta dijoa.

-Eperrak arrapatu...!

-Bai, jauna. Biak.

-Eper biak arrapatu ditula? Nik Errioxatik ekarritako eper ederrak...

-Biak, jauna.

-Ez ditu ba berak jango! Ez, orixe, arranepolak ez baituk!

Kutxilloak esku banatan ditula ekin dio praillearen ondoren. Erretore-etxearen aurreko zelaixoa pasa eta praillea maldan gora dijoa mendian, eskuak belarrietan ditula. Gaztea izaki. Bere atzetik Erretor jauna kutxilloak eskuetan. Alperrik, ez bait du arrapatuko:


-Aizu, konpañeo, biak ez ba'dira, bat beintzat bai...!

-Ez bat eta ez bi. Batere ez.

Malkorrean gora zeiniek arrapatu gure praillea...! Bide-erdian gelditu da gure Erretore jauna buruari atz egiñaz:

-Au dek praille xelebrea, amorraiñak jan ondoren, eperrak arrapatu... Kontxo, kontxo... Bere sermoietan ez al dik zazpigarren mandamenturik erabilliko! Orixo ba-karrik palta genduke...

Oto, Pototo eta konpañiak naiko parre egin zuten gau artan Erretore eta praillearen bizkarretik.



OTO'REN MELOIAK

Oraingo oitura berria, munduan zear, baita Euskalerrian ere, naiko zaarra: langabezia arintzeko soro-zatitxo bat eman langabetueiri, alegia.

Oto'ri ere lur-zati bat eman zioten Erriberan eta Europa'ko merkataritzarako emaitza onak dirala-eta meloiak ereintzen ekin du gure gizonak.

Lurra an, Jainkoak dakien baztar batean, eman zioten eta soro-erdian txabolatxo bat jaso zuan bertan jan eta zenbait aldietan lo ere egiteko.

* * *

Udazken oparoa gertatu zan eta meloiak ugari bezain ederrak eldu ziran. Oto naiko buru-soil dabil aspalditxo onetan; urteak ere bai eta, jakina, urteekin batera joan oi dira buruko txima-illeak. Baiña, berak esaten duna:

-Sekulan ikusi duk asto buru-soillik?

Egun batez Sakana'ko Urlia jaunak onela eraso zion:

-Eta, bum-soil ez dan zerririk...?

Oto jaun prestuari ori esan? Eta, gaiñera Etxarriko batetek...? Lazkao'ko Estraposilbeneko txerridunek esan ba'lute, gaitz'erdi, Gipuzkoa-aldean txerriak ez bait dute illerik; baiña, Etxarriko mendietan txerri illedunak ere ikusi oi dira...

Dana dal, Oto asarre jarri zitzaigun:

-Ni bezalako gizona zerri batekin konparatu...!

-Zuk besteok astoakin konparatu gaituzu... Eta, kito!

Eztabaida bertan bukatu zan.

#

Meloiak biltzeko garaia zalarikt, joa da Oto Erriberara. Banan banako meloiak agertzen ziran soroan. Maitasunez jaso eta txabolan gorde zitun kurioso-kurioso eta begiruneazi. Artan ari dala gauak arrapatu zuan eta txabolan lo egitea erabaki du. Etzan orduko, loak arrapatu zuan...:

"Egunez ikusi eta gauez eraman" esan oi dute nik dakiten bi errieri buruz: alan egiten omen dute bertakoek. Aiek bakarrik ez. Gau artan etorri zanak, meloiak ikusi zitun egunez, eta sorgiñak erratzeetan irten duten orduan, Oto'ren txabolan sartu lapurretan gauez.

Merke eramatekotan, merkeago ezin, ederrenak aukeratu. Artan zebillen gure lapurra illunpeetan, oneri eldu, arreri ikutu, ederrenen billa. Ikutuz-ikutuz Oto'ren buru-soillarekin topo egin du:

-Au duk ederrena! Esan zuan berekiko.

Ori esanarekin batera meloia jasotzen asi danean, orduantxe zebillen Oto amesetan: eizeera joan eta kokodrillo batek, ao zabalik, eldu zion burutik, Afrikan.

Jo du garraxi biriketako indar guztiaz.

Lapurra, meloia garraxika entzun zuanean, zerraldo erori zan lurrera kordarik gabe. Otok krisaillua piztu zuanean, kokodriloaren ordeez, gizon bat topatu zuan bere egalean, konorterik gabe.

Otok ez zekien zer pentsa eta ura bota zionean aurpegira, orduan esnatu zan lapurra zearo urduri. Larrita-

sunean tabakoak bear izan oi dute zenbaitzuk eta arrek ere bai.

-Tabakorik ba'duzu? Esan zion apalik eta bildurti eskale antzeko arrek.

-Bai, ba'dut.

-Emango al didazu apurtxo bat?

-Bai, emango dizut.

Bere poltxa ximurretik atera zuan tabako apurtxo bat eta eman zion.

-Paperik ba'duzu?

-Bai, badut. Txalekoaren poltxikotik atera eta eman zion Zig-zag papertxo.

-Surik ba'duzu?

-Sua?

-Bai, sua.

Otok asarre ekin zion:

-Lenengo tabakoa, gero papera eta orain sua? Ezpainak naituk, koino, erretzeko espainak...? Zer kristau-jenero aiz i?

Alaz ere eman zizkion bi meloi, ez bait zan konturatu ze arraiotara etorri zan bere txabolara. Izan ere Otok burua gogorra, baiña biotza biguna.



URA ETA ERRADEA

Askotan bizitza latza agertzen zaigu. Senar-emazteak bakoitzak bere gurutza eraman bear, alkarri lagunduaz; baiña, Otok dionez, ala egin bearrean, alkarri gurutza gogortzen saia oi dira.

Bodegoi zaarreko kuadroa gustatzen zitzaion Oto'ri, sukaldean zeukatena. Ara nolakoa zan: Gizontxo bat zi-joan gurutzepean, gurutza eraman eziñik arrastaka; bere emaztea, berriz, gurutz gaiñean eserita lasai... Ori asko ez dala, eskuan zeraman oiñetakoarekin burutik beera ematen zion senarrari...

Ori orrela ez zan Oto'renean. Ez eta gutxiago ere. Beuren gora-beerak izaten zituzten eta asarrealdiak ere bai noizbeinka; baiña, andre Joxepa emakume maratza zan, etxeari ondo begiratuko ziona eta ortik ez zetorren kalterik. Gertatzen zana zan, Otok ez zuela sekulan suerterik izaten negozioetan. Alderantziz gertatzen zitzaion lanbidea beti. Iñoiz asmatu ezin.

Orain bertan ere mandozai sartuta dabil, ardoa Naparroan erosi eta Gipuzkoan saldu. Gau eta egun kamiñoetan zazpi mando zaar menperatu eziñik. Atzo gaueko amarretan eldu etxera, aspaldi illunduta gero. Blai-blai dator, ura lepotik sartu eta orpotik atera. Ardoak ga-

lesti erosi ditu, mandoak bein ez bezelako biurriak...
Amorra eginda dator.

Sartu da etxean. Sutondoan andre Joxepa epelean, galtzerdia egiten; egun osoan lan asko egin du, kanpoan euria goitik beera eta ez dauka jeikitze gogorik:

-Aizu, Oto, erradea utsik daukagu. Ura paltá. Gaiñera euria da. Bustita zauden ezkeró, artu erradea eta ura ekarri iturritik.

Nik uste nuan onduantxe trumoiak eta tximistak joko zituztela; baiña ez, ixil-ixilik erradea artu eta badijoa ur-billa erriko iturrira. Milagroren bat gertatu da.

Badator etxera erradea urez gaiñezka. Sartu da andre Joxepa'ren ondora; lasai zengoan galtzerdi egiten. Batabatean uztu dio erradea burutik beera:

-Zu ere, buztita zaude orain. Joan eta ekarri ura iturritik.

Andre Joxepa gajoari ez zaio arnasarik bere onera etorri oraindik:

-Alena, alakoa...!

LARRIALDIA

Urteak aurrera doazenean eta gorpuza makaltzen, atsegiñago izan oi da oiñez baiño, zaldiz. Gaur eguneko zaldiak berebillak dituzu, automobilak.

Otok ez zuan berebillik erosteko aiña dirurik; bere biotzeko Pototok, ordea, an zeukan estreñatu berria, ta-

pizatua eta gorria. Motarik gabe, garbi garbia; izpillua bera baiño garbiago.

* # *

Jai-arratsalde artan, Beizaman Pototok motor bat ikusi bear zuala eta, konbita egin zion Oto'ri, berarekin ibillaldia egiteko.

-Atsegin izango zait.

-Orduan, iruretako prest egon.

Oto gerritik gogortzen asita zegoan eta lokarri gabeko botak erabilli oi zitun oiñetarako; aldamenetan gomak izaten dituzten oietakoak, korapillorik gabe jantzi eta kentzeko moduan.

Apain-apain jantzi zan ibilladirako.

* * *

Beizama an zegok, joan da bertan; baiña, ara iristerako ordu terdi luzetxoak pasa zituzten bidean. Pototo sartu zan kamiñotik alde zegoen bidetxurretik errotara joateko, motorra ikustearren. Bitartean Oto gizarajoa preso automobil-barruan. Bai ba, Pototok bere aldeko atea giltzaz itxi zuan eta Otok, berriz, bere aldekorik irikitzen asmatu ezin.

Asieran Oto gustora zegoan barru artan, patxara ederrean; baiña, patxara onenean egonda ere, luze gertatu ezkeru, aspertu; batez ere txixa-larriak ematen ba'dizu.

-Zer egin bear det nik orain...? Automobilla platera baiño garbiago eta leioak altuxamar... Zer egin bear det...!

Eutsi zion larriari, izardi otsak eman arteko guztian. Leertzeko zorian ikusten zuan bere burua. Azkenerako, orratio, asmatu zuan nola egin. Eskubiko oiñetako kent-

du, bertan egin eta leiotik kanpora bota. A zer lasaitasuna barruan...!

Gero esango dute Oto argi gabeko gizona dala...!

TXOKOLATE GOGORRA

Urte batzuek dirala oitura izan oi zan elizeetan gogojardunak izatea. Aste beteko sermoiak eta itzaldiak ziran eta ondoren jende guztia konpesatu egiten zan banan-banan, beuren pekatuak aitortuaz barkamena eskatzeko.

Garizumako sermoi oien ondoren, Oto "txekorra saltzera" (aitortza egitera) joan zan elizara. Praille bizarduna an zegoan konfesonarioko kaiolan sartuta eta bere aurrean bi errenkada luze gizon aitortzeko txandaren zai.

Otok presa aundia edo an zai egoteko astirik edo gogorik ez. Joan da Joxeparengana:

-Zuk zer egingo zenduke, konpesatzera ba'zoaz, txanda-pasa egiteko?

-Praillearenganako asmoa ba'dezu, ni ori oso ondo ezagutzen det eta konbeni zaizu txokolatea erosi eta eramatea. Asko guztatzen zaio eta lau ordu badaramaz konfesatzen. Aspertuta eta gosetuta egongo da onezkerro. Zuk txokolotea erakutsi egiozu eta txanda-pasa egin baietz!

-Zu bezelako emakume argirik nun?

Joxeparen aolkuari kaso egiñez, erosi zuen Otok txokolaterik onena. Elizara doala, beaztopo egin du ladrillu mee batekin. Buruan argi bat piztu zaio:

-Zertarako txokolatea eman? Ladrillu dotore au sartuko diot txokolatearen zorroan.

Pentsatu eta egin. Txukun gelditu zitzaion, itxura onean. Konfesonario aurrean estulka asi zan, praillea konturatu artean. Orduan txokolatea erakutsi zion Otok.

-Ia, ba, datorrela orroko ori, presa aundiakin omen dator-da...

Egin zituzten beuroen lanak: Otok esan eta besteak barkatu.

-Orain, penitentzirako, Aita Gure bat esan San Pedroren aldara aurrean. Otok alde egiterako, sartu zion ortza prailleak txokolateari. Sartu? Bai, bai, tokitan zegok... Ortza apurtu zitzaion. Bitartean Oto San Pedro-aldararen aurrean otoitzean dago, bukatu duanean, kalera bidean asi da; baiña, prailleak ots egin dio bereganatzeko:

-Ator, ator. Penitentzia bete al dezu?

-Bai, jauna.

-Azkartxo egin dezu. Nun zan?

-Ortxe, San Pedro-aldararen aurrean.

-Or?

-Bai, jauna, ortxe.

-Ez, ez, orrek ez zuan balio: Erromako San Pedroren aurrean bete bear dezu penitenti ori.

-Erroman...!

-Bai, Erroman.

-Penitentzi gogorra ematen dit berorrek.

-Gogorragoa zan zuk emandako txokolatea.

PERREJILLONDO ETA TXORIAK

-Perrejillondo, atoz etxera!

-Zer izen esan diozu...?!

-Perrejillondo.

-Izena al da ba ori?

-Neri ez esan. Apaizak berak jarri zion izen ori.

-Tira, tira... Ori ez da egia izango, orratio...!

-Ezetz? Galdetu berari. Berak jakingo du zergaitik egin zigun orrelako gauza bat.

-Galdetuko diot ba.

#

Ikusi nuan batean, laguna zitzaidan apaiza, eta galde-
tu nion nola zeikean orrelako izena mutiko bateri ipin-
tzea:

-Egia al da Buztinbeltze'ko mutikoari Perrejillondo ize-
na jarri diozula?

-Zer esan dek?

-Perrejillondo izena zedorrek jarrita omen du muti-
koak...

-Ez zekiat, motel, orrelako astakeririk egiteko kapaz ote naizen... Begiratu bat liburuari ematera natxiok.

Liburuan argi zegoan: Zubiazpikogokoetxea'tar Her-menejildo.

#

Urrungo batean Buztinbeltze'ra agertu nintzan. An ze-torren gure Perrejillondo Txori-sorta bat gerritik txintxili-ka zuela. Eskopetatxo bat bizkarrean.

-Zer, Perrejillondo, eizean...?

-Bai. Gaur pasea izan da ugaria.

-Usoak, bidegarroak, xoxoak... zer pasa da gaur?

-Txoriak. Ara emen zenbat: kardantxuloak, tariñak, burubeltzak, txepetak, txatxangorriak...

-Zenbat dira?

-Emezortzi.

-Eta, oiei ere tiroa botatzen diezu...?!

-Gizonak ere botatzen die.

-Bai?

-Bai, orixe! Prejituta oso gozoak daude.

-Baiña, gaur ez da jai, asteaizkena baizik...

-Eta zer?

-Oporraldietan ez gaudela...

-Ez.

-Eta, eskolara jaon gabe gelditu zera eizerako...?!

-Pase-giroa danean ni ez naiz eskolara joaten.

*

Ezda ipuiña. Perrejillondo izenaren arazoa, baietz deritxot.

* * *

Suizako Davos deritzan erriko basoetan, txoriek ogia eskutik jan didate; baita katamixarrek kakauetak ere.

Onela zion nere lagun italiar batek:

-Au zoragarria dek: zuek emen gizendu eta guk Italia'n jan.

Arpegia bear ori esateko ere.

Gure mendiak mututa daude. Txori bakanen bat besterik ez da entzuten.

ALKATIARI OMENA

Oto Bizkai aldetik ibillia dogu. Ona emen orduko gertakizun bat:

Baporerik ez zan ondiño geure kaietan ikusten eta txalopa-andiak joaten zirian atunetan belatxu bategaz eta arraunetan. Radixorik ez, arin ibilli ezin eta bat-batean galerna sortutakoan, bertan atrapate ebazan.

Udara aretan galerna itzalak jo eban Kantauri Itsasoa eta txalopa-andi asko ondoratu zirean. "Goizeko Izarra" eban Sotaren barkuak izena eta aretxek salbatu eban Erriko txalopa-andi bat.

Geure Oto be an euan egun artan odoratutako txalopan. Ortik edo sortu jakon biriketako gaitza. Txarto ebillen eta joan zan Bilboko sendagille espezialista baten gana. Gizon argia eta azkarra, "oyo kliniko" eukan zozarria. Gaixoa berbarik esan barik be, asmate ebazan gaxotasun guztiak.

Etorri zan Oto berengana eta sendagilleak onela itaundu eutzan:

-Zer dozu, Oto?

-Bularrean daukot estutasuna.

Ipiñi eutzan bularrean zillarrezko ogorleko baten antzeko tresnatxu bat eta batetik bestera ikutuaz:

-Zeuk birikak daukazuz gaizki.

-Bai, neuk pe orrenbeste igartzen deutzot; baiña, zergaitik...?

-Neuk esangotzut ori neuk galdetutakoari ondo erantzuten badozu. Piparik erreten dozu?

-Ez, jauna.

-Zer opiziño gaukazu?

-Arrantzalia naz, jauna.

-Tostarteko?

-Ez, patroí.

-Eta, leorrean beste lanik egiten dozu, ieltzero edo...?

-Ez, jauna.

-Errementari?

-Ez neuke nai errementari izan...

-Zergaitik ez?

-Nere amamak auxe kantaten eban:

Errementeri baiño/oba da zesteru(bis)

esku-bete paluaz/kolko-bete diru

ai, ai, ai, kolko-bete diru...

-Orduan, legorrear ez dozu iñundo zerik egiten...?

-Bai, jauna, Erriko Banda Munizipalian jotzen dot...

-Esaten neban nik... Bonbardinua edo tronboia joko dozu zuk... eta orregaitik daukazuz birikok txarto.

-Ez troboirik, ez bonbardiñorik ez dot nik jotzen.

-Zer jotzen dozu, ba...?

-Bonbua.

Oto zergaitik egoan gaixo, ez eban sendagilliak asma; baiña, errian danok ekien galerna aretik egoala nolabait gure gixon prestua.

Sendatu zan. Egun batez Udalak erabaki eban Alkate jaunari omenaldi bat egitea, galernakoa zala bide, Sota-rekin artu-emonetan ibilli zalako eta orreri esker, Gobernuak moillak konpondu ebazalako.

Pozik egoazan arrantzaliak, ke-artean taberna zuloan sartuta bixiguak erreten, euren artean berbetan:

-Bai, ba, obeto pasaten dogu barratik joatean eta etortean...

Eurokin batera erri osoa egoan pozarren. Aldameneko eritik be etorri zan Udalaren ordezkoa bat, bi errien arteko asarreak baretuta egozan-da.

Egun aren gomutarako, oroitarri bat ipintzea erabaki eben Alkatearen etxeko leiopean.

* * *

Eguna eldu danean musikariak irten dabe Udaletxetik, El Liberal'eko eibartar kronikalariak esan eban lez:

"Banda Munizipala por delante eta pueblo soberanua por detras". Etorri dira oroitarria dagoen etxepera. Kalea gizon eta emakumez estali, bete-bete.

Alkatearen emazteak irten dau leiora eta bertatik oroitarriari estaltzen eban zapitxoa, kendu deuzo. Txalo jendiak eta Banda Munizipalak ekin deuzo jotzeari: "Boga, boga, mariñelak..."

Aldameneko erri-ordezkarria egoan ao-zabalik bentanari begira (eurok leioari bentania esaten dautzie) eta, bere aldamenean bonboa apurtu bearrean egoan Oto'ri, onela esaten deuzo:

-Emen, andrazkoa daukozue alkate...!

-Emen andraskoak sukaldean, alkate gixonok gara.

-Orduan, bentanan dagoen andra ori nor da?

-Alkatearen andrea.

-Alarguna da...?

-Ezta alarguna.

-Noren omenaldia dok?

-Alkatiarena.

-Alkatiaren omenaldia, alkatia gixona da, andra ori ez da alarguna... Zer misterio dok au...? Nun da Alkatia...?

-Gizona bi tokietan batera egon ezin eta ez dok ikusten bentana orretan ez dala sartzen nera bonborik, ala...?

ISPI-ZALATARI

Australian azukre-kaiñaberak ebagi ondoren, emen agertu zitzaigun "indiano" biurtuta. Indianoak dirudunak dituzu Euskalerrian. Dirudunak edo diru-ots aundikoak beintzat, bai.

Otok, dirua bazuela adierazi nai eta estranjerira jo du Pototo'rekin. Onek, berriz, alkate dan ezkeroz ate guztiak zabalik ditu edonorako. Estranjerian estranjeroak bakarrik ez dira bizi; baita ispi-zalatariak ere.

Gerrate baten ondorean, estranjerira doazenak, alkate edo izan ezik, zalatari-susmoa beorokin daramate.

Pototo, alkate izan ibillera artan; Oto, berriz, iñuzu-xamarra eta sekulan kolaborazionista izan gabekoa: susmo guztiak berekin zitun eta bear ba'da fitxaren bat ere bai poliziko fitxeroetan. Dana dala eta dena den, mugazaiñak errejistroa egin zioten berari eta bere emazte andre Joxepari. Onek, gerriko bezela, amalau metro galartzu eder zekarren bere atorrentzako, eskapularioen antzera bi botella koñak petaka antzekoak eta lau pare kantontzillo bata bestearen gaiñean... Otori buruz:

-Au, ispia ezik, kontrabandista gogorren bat diagu-zioten muga-zaiñek.

Sartu dute gizarajoa gelatxo batean eta mundura etorri zan bezelaxe utzi zuten polizikoek. Pototo, berriz, alkate jauna zanez, an zeukaten errespeto osoan, Oto'ren garbitasunak jakin arte.

-Zer deritxozu zure lagun ori, alkate jauna?

-Lapiko xamarra dala; baiña, indianoa danetik ona, asko ibiltzea gusta oi zaio, dirua ba'lu bezela; nik, ordea, gizon au Australian ikusi nuan naiko arlote azukre-kaiña berak ebagitzen. Lan artan irabazitako diruak, andik onerako biajean joaten dira pikutara...

-Ta, diru asko al darabil...?

-Auskalo... Auskalo...

-Eta zuek alkarrekin ibilli zerate Paris'en?

-Bai.

-Denbora guztian?

-Bai... Baiña, gaur goizean erriska batean gelditu arazi dit automobilla eta besterik gabe taberna-zulo batean sartu da... Denbora luzean egon gera beraren zai.

-Zertara jaon da, kafea artzera...?

-Gurekin genduan kafea biderako naikoa. Orretara, ez.

-Ardoa edo garagardoa artzera...?

-Goiza zan eta otz egiten zuan ardoa eta garagardoa edateko. Pattarra, berriz, geurekin genduan berebillean.

-Bai, bai, kolkoan ere bai eskapulario bezela. Zertara joan da orduan, tabernara...?

Alkarrizketa au Pototok eta muga-zaiñak euren artean zeukaten.

-Gizon au peligroso xamarra izango ote degu?

-Peligroso baiño tontoxo, geiago esango nuke nik; baiña, zeñek daki gaurko egunean nor zein dan eta zer dan...

-Bada ez bada ere errejistroa egin bear zaio gizon oneri kontuz.

Errejistroa egin zioten zorigaitzez; atzekoalde guztia arrastoz beteta ez diote ba, topa...! Pototok muga-zaiñari:

-Zeiñek esan Oto iñuxente au orrelako lanetan sartuta egon bear zuenik...! Gaurko egunez ez liteke iñorekin fia. Eta, zer diote arrasto oiek?

-Interpretatzen gaitzak dira. Ara zer topa diogun:"po-bre prisionero encarcelado cargado de nostalgia... cul... car... j . . . na."

-Ori erreza da: "prisionero encarcelado en Cartajena".

-Baiña, alkate jauna, Cartagena g'takin idazten da eta ez j'rekin. Zergaitik aldaketa ori...?

-J'rekin gogorrago entzuten dalako. Indar geiago du. Konturatu zaitetz zer itz idazten diran j'rekin...

-Jodidos, bat.

-Or dago ba, nik esaten dedana...

-Beste arrastoak onela dio: Jai... jamelaja... ula. Zer izan liteke ori?

-Jai ere jo'rekin asten dan itza da-dio Pototok.

-Jota asko dago emen gauza onerako, alkate jauna.

-Interpretazio esoterika bat bear degu. Au indianoa da, Indian jotakin asten diran itzak bear dituguz...

-Ez da arazo erreza!

-Garbi dago. Ni asko ibillia naiz alkate naizen ezke-roz, eta onek Mitra'ren kulto illunen bat adierazten digu.

Erroman ikusita nago Mitraren elizatzko bat eta an sugea dago zutabe batean eta goian Mitra'ren irudi bat dana titiz betea; aldamenean, berriz, zezenak iltzeko arri laban bat... Gauza garbia dago emen: akelarre beltzeren bat dago tartean arrasto oietan eta kontuan izan garai batean akelarreetan sortzen zirala ilketa eta krimen guztiak... Terroristen lanak dira auek...

-Berari galdetu bearke diogu.

-Ez dizute ezer esango.

-Esan bearke du.

-Iñuxente eta tonto-iñuzu aurpegia ipiñiko dizute eta kertenkeri batekin aterako zaizue...

Muga-zaiñek sartu dira berriro Oto'rengana:

-Zer dira atzekoaldean dituzun arrasto oiek?

-Zer arrasto gero...!

-Ez didazu ukatuko arrastoz betea zaudenik...

-Amesetan ipiñi ez ba'didate arrasto oiek...

Pototok aldamenetik muga-zaiñari:

-Esaten nizun nik...

Muga-zaiñak Oto'ri:

-Emen tonto-aurpegirik ez ipiñi!

-Tonto-aurpegirik ipiñi bearrik ez det; bein betiko ipiñi zidaten eta arrezkero nerekin daramat alde guztietara.

-Kopla gutxi emen eta esan zeñek eta zertarako ipiñi dizuten arrasto oiek!

Ori esaterarekin izpillu bat ipiñi dio atzekoaldetik:

-Ara, izkiak edo letrak inprentaz egin dizkizute ipurdian. Norako dira?

-Jontxo, jontxo...! Egia da.

-Eta, orain zer?

-Begira, ba: bidean gatozela, estutasunak eman dit eta errixka batean gelditu gera. Nik geldi arazi dut automobilla taberna baten aurrean. Sartu naiz komunera eta eserlekua zegoan bustita eta pratikeran nekarren egunkaria ipiñi det atzekoaldea ez bustitzearren... eta angoak izango dira letra oiek.

-Kontu polita asmatu dezu; baiña, ori egia ba'da, be-reala ikusiko degu. Nun da egunkari ori?

-Eskerrak bota ez dedanari, irakurri gabe neukan-da. Ara emen. Orain ikusi zuek ni ez naizela ispi-zalatari bat. Gutxiago ere.

Ekin diote konparaketan.

-Au klaberen bat degu...

-Klabe de sol ez ba'da... Ni tontoa naizela, baiñan emen bazegoak ni aiñakorik (Otok Pototo'ri).

Ona lenengo esanaldian falta ziran itzak: (Se ve la) cul (pa en la) car (a a) jen (a). Eta arabe itzak: Andrak esaten dio gizonari: Jai (me ba) jamela (ja)ula.

Otok berriro Pototo'ri:

-Alkate, arrakaste!

S O R G I N T Z A N

Errota-txikiko zubi-azpian izan oi zuten bere atsegingleku arlote eskaleak. Negozioak okertu eta eskera jobear Oto gizara joak, Aro Erdiko ez lur ez nagusi ez zutenak bezelatsu.

Or zebillen Oto ez lur eta ez nagusi.

Nagusi bat genduan errian: baserri geienak, mendi eta basoak, ura eta errekek, aizeak eta olak, denak, jaunarenak ziran.

Baiña, guztien anima-gorpuzak bere eskuetan zitun jaun orrek, alabeari osasunik erakarri eziñ...

Gaxo zeukan Lazkao'ko Jaunak bere alaba.

Gaxo aspalditik eta ura sendako zuen sendagillerik ez iñun.

Makiñatxo bat alegiñ egiñ zituzten, baiña denak alperrik: ura iñork sendatu eziñ.

Ez zituan aitak itxaropen guztiak galdu eta turuta jobe zuan baztarretan:

-Iñork nere alaba sendatuko balu, ditudanen erdiak emango dizkiot.

Oto arlotea egun artan iñoiz baño arloteago. Egariak agortuta, goseak aulduta, bere gordelekura urbildu zan.

Triste urdalla eta triste anima ere.

Errekako urakin tripa-zorriak ill ondoren, loak artu nai auleria garaitzeko. Loak iges eta atzeman ezifi. An ze-goan Oto gora begira, zubi-azpian, begiak atez-ate zabalik:

-Ene! Amabiak erriko dorrean...

Amabiak jotzarekin batera, orra Zugarramurdiko sorgiñ guztiak aidean Errotatxikiko zubi-azpira, lixubea jotzeko asmoetan.

An jardun zuten txipli-txapla eunezko soiñekoak garbitzen eta inguruko jendea maxiatzen:

-Aizan, Jaunaren alaba gaxo dala ba al dakiñ...?

-Bai, bazekiñat.

-Zergaitik, ote...?

Ori entzutean, Oto'ri belarriak astoari baño tenteago jarri zitzaizkion, Jauna'ren turuta-otsa entzuta bait zeukan.

-Nik bazekiñat zergaitik...

-Ez den jakingo...

-Ezetz? Bai orixe.

-Zergaitik, ba...?

-Ba, Meza Nagusian eman zioten ogi-bedeinkatua lur-
rera bota zualako.

-Eta...?

-Sapo batek artu eta ao-zapaian gordeta zeukan.

Oto'ren belarriak tin-tin egiten zuten txintzarrien an-
tzera.

-Nun zegon sapo ori?

-Eliz-kristo txikitik irten eta lau metrora dagoen arri
zabal baten azpian eta ogi ura jan arte ez den Jaunaren
alabarik sendatuko... Ijijii...!

Une artan, sorgiñen irrintzietara, esnatu zan Errota-txi-
kiko marti-ollarra eta ekin zion kukurrukuari...

Ango sorgiñen zalaparta...! Kukurruakin batera lixu-
bea jaso eta an joan ziran laisterka beuren zuloetara.
Sorgiñak uxatzeko marti-ollarrak bere biziko birtutea
omen du...

Gure mutilla pozik zegoan oiek danak entzutean eta
bere etorkizunarekin amesetan igaro zuan gaua... Bai,
Jaunak emango zizkion diru aiekin lenengo ogi aundi
bat eta pitxar ardo bat erosiko zitun. Gero kapuzai be-
rria; ondoren, abarkak eta amantarrak; geroago, txabola
berri bat egingo... eta, golperik eman gabe, jauntxoan
erara biziko zan andik aurrera... (Sekula golperik eman
balu bezela...)

Ez zan bereala egun-sentia eldu. Argi-izpiak mendi-
gallurrak ikutu orduko, an joan zan Jaunaren jauregira:

-Dan, dan.

-Zer nai? Eskean asteko goitxo dek oraindio.

-Ez nator eskean.

-Zertan, ba?

-Jaunaren alaba nola sendatuko dan badakit...

-Zer esan dek...? Mozkortuta al ator...?

-Ez, jauna. Iru egun auetan ez det ardorik proba. Dirurik eza.

-Asi, asi berriketan; baña, adarra jotzera etorri ba-aiz, neronek sartuko dizkiat adarrak iri.

-Ni, entzundakoak esatera nator.

-Asi lenbailen.

-Ba, bart...

Eta esan zizkion atezañari, zekiñak.

Ez zion atezañak sinistu; baña, badaezpada ere, Jaunari esan zizkion Oto'k zekarzkin berriak.

Joan ziran eliz-krizto txikiko arlosara, jaso zuten eta an zegoan sapoa ao-zabalik ogi puxketa erakusten. Era-man zioten neskatoari.

Baita Jaunaren alaba sendatu ere.

* \$

Bazkari ederra, jantzi berriak, oñetakoak eta dirua naikoa Oto'rentzat egun artan.

Bigaramonean bere lagun-eskale Pototo'k ikusi zuanean.-

-Baña, Otoo...! Nun arrapatu dituk oiek...!

-Joan da bertan.

-Baña, zer...? Nundik-nora aberastasun oiek...?

-Andik-artara...

-Ori ez dek erantzuna... Lagun bateri ez zaiok orrela erantzuten!

-Erakutsiko dizkiat ba izkutuko berriak...

-Zer...?Zer...?

-Ara, joanari gaur gaueko amabietan Errota-txikiko zubi-azpira eta an ikasiko dek ariñariñ eta bizkor-bizkor aberasteko modurik onena...

-Eskerrik asko! Eskerrik asko! Eskerrik asko!

Su-ziria sartu zion ederra Oto'k Pototo'ri, ez bait da inoiz izan diru-amesa bezelako su-ziri bizirik.

Gaua etorri zai, urduri zegoan Pototo.

Noizbaitean, orratio, illundu zuan eta zubi-azpiratu zan gure gizona.

Amabiak dorrean jo-orduko, amar aldiz ustu zuan bere puxika Pototo'k. Ura larritasuna...! Aberasteko bidean zegoen...!

Azkenik, amabiak dorrean:

-Au poza, oraintxe det nere zoriona...!

Begien eurrean ikuskizunak asaldu zitzaizkion: alde guztietatik sorgiñak, erratseetan zankalatra, (eskobeetan zaldizko, alegia) lixubea jotzeko asmoekin. Asi ziran txipli-txapla arlosetan soiñekoak jotzen:

-Aizute, Jaunaren alaba sendatu omen den...

-Bai, ala diote.

-Sapoaren ogia jan omen diñ...

-Bai, ala diote...

-Gure artean salatarien bat zegon...

-Salataria gure artean...? Ez ote dago emen bateren bat gordeta gure kontuak aditzen...?

Asi ziran azterketan eta Pototo'rekin topo egin zuten.

Urrengo goizean ez zan Oto'rengana agertu, begiak bait zitun more-more gizarajoak.

BAROMETROA, LETXUGAK ETA ERREPUBLIKANOAK

Oto asper-asper eginda zebillen etenik gabeko euri-aldiak zirala-ta. Baratzako landarak barez eta karakolez beterik zeuden beti. Aurrerapenik iñolaz ere ez.

Aurrera bearrean, atzeraka.

Oto'k izan oi ditu bere argi-aldiak ere buruan. Munduan gauza asko entzun eta ikusi ditu. Bere ezikera ez da ain arlotea izan... Tarteka, jaikintsu ere bada...

Argitasun oietako baten ondoren, erabaki bat artu du eta Prontxio'ren dendara joan zaigu zuzen-zuzenean:

-Zer nai, Oto?

-Zera, egualdirako oietako tresna bat.

-Zer egualditarako...?

-Ba, prezio berdiñean, onerako...

-Eguraldi onerako, zer? Sonbrillaren bat?

-Ez, gizona. Beste egualdirako tresna oiek...

-Garbiago eta argiago esaten ez ba'dek, ez diat tutik entenditzen eta ulertzen.

-Ba, argi ari naizela usten diat: eguraldi onerako tresna.

-Sombrero bat?

-Ezetz! Eguraldi ona egiteko tresna!

-Barometroa?

-Bai, orixe.

* * *

Bere barometroa artuta, pozik joan zaigu etxera gure Oto. Ikulluan ipiñi zuan beien artean. Zer, ba? Ez aldira an bertan eguzki-loreak eta erramuak ipintzen tximisten kontra...? Ba, berdín, berdín: eguraldi ona sortzeko, barometroa ikulluan, beien artean...

Arranea! Oto'ren gogoak bete ziran; geitxo ere bai... Aizea egoaldetik jarri zan, terrala itzala, eta beroaren berroz, bareak alde egin zuten arri-azpiko lizunera; landareak, ordea, bero sargori arrekin murrizten asi ziran.

Joan zen Oto, barometroa bezazpian zuela, Prontxio'ren dendar:

-Aizu, Prontxio, nik eguraldi ona nai nuan; baiña, ainbestekorik, ez. Katxarro oneri martxatras ematerik ez al dago...?

-Bai, gizona.

Erantzun zion Prontxio dendariak: "bezeroak beti arrazoi" izan oi da bere egitaraua. Egin zion tresna arreri onelako kiñara bat, astindu zuan esku-artean:

-Ara, onen bestekin zuzenduko da eguraldia.

* * *

Dana alperrik, ordea, ez zan ezertxo ere zuzendu. Baratzean azak zitun galantak; baiña, letxugak ez zuten bururik jasotzen. Alako batean, lanik gabeko gizon bat agertu zitzaion baratze-ingurura:

-Mesedez, lanik gabe nago eta...

-Politika aldetik zu zer zera?

-Ba ni beti errepublikanoa izan nok eta eibartarra.

-Torizu nere baratzako azarik ederrena.

* * *

Pozik joan zitzaigun gizona bere aza galtzarpean zuala. Ori ikusita beste gizon urreratu zitzaion Oto'ri:

-Aizu, gizon orreri aza bat eman diozu...

-Bai, ta...?

-Ni ere bearrean arkitzen naiz, biarrik ez-da...

-Lanan bearrik ez ba'dezu, zertarako bear dezu lana?

-Biarra esaten diogu guk Plaentxian lanari.

-Zu ere Eibar ingurukoa zera, beraz? Zu ere errepublikanoa izango zera, e?

-Ez, ez. Ni auetakoa naiz. Erregearen aldekoa.

-Karka?

-Ez, palankista.

-Orduan, zuri batez.

-Arrei eman diozu, ba...?

-Zuek "Cara al dol" orrekin letxuga guztiak erre dizkiazue; baiña, aiek "Himno de Riego"rekin a zer mese-dea...!

Gizona asarre joan zitzaion andik.

-Zer, ba? Ni tontoa naizela pentsatuko die auek. Tok!

* * *

Pototo datorkio motozikleta baten gaiñean arro-arro.

-Kaaxioo, Oto! Zer abil, aza saltzen?

-Azak ondo zeudek; baiña, letxugak gaizki sargori onekin...

-Neretzako sargoria bapo zetorrek. Motor-gaiñean ez diat bat ere sentitzen.

-Gure letxugak, bai.

-Erosi egiek motorra... Ja, ja, ja...!

-Parre egizak nai ba'dek; baiña, barometroa erosi diat denbora ona egiteko. Onegia gertatu, ordea...

-Tonto-lapiko ez bestelakoa, ori ez duk denbora ona egiteko, "milibares"ak neurtzeko, baizik.

-Milibaresak?

-Bai, milibaresak.

-Ori ere ba'degu...? Esaten nuala nik denbora auek ez zirala parte onekoak.

ERDERAZ ALFABETATZEN
ESTATUTO-BEARRIK
EZ IZATEKO

Estatutoarekin soldauzka emen egitea gustatzen ziztaion Oto'ri; baiña, Estatutorik ezean, boluntario joatea erabaki zun. Orduan ez zuan usten ez zala Estado Maiorrean sartuko koronel bezela. Infanteriko soldau soilla izatekotan, naiago zuan, Pototo'k esan bezela, erderaz ikasi, eta orrela (Pototo'ren esanetan).ez zuan geiago Estatutoaren bearrik izango. Bait ba, euskerak ikuillu-usaiña omen du aundia eta ezertako balio ez (Pototo'ren jardunetan)...

Erderaz ikasteko erabakia artu arren, ba-zitun Oto'k, bere keskatxoak:

-Eta, il-ondoren, erderaz ikasi eta euskeraz aaztuta-koan, nere guresoekin nola arraio alkar artuko degu, Pototo?

-Onezkero oiek ere erderaz ikasita egongo dituk. Ikasi zak erderaz bestela ez duk botones sartzeko konbentzirik iñun izango.

-Botones zer da? Botoa ez emateko?

-Ez, gizona, botones botones duk-boto-nes. Argi ta garbi zegok.

-Nik ez det garbi ikusten...

-Erderaz ez dakikelako duk ori. Begira: boto-nes, arpo-nes, recojo-nes... oiek danak berdiñak dituk.

-Beno, beno... Asi erakusten eta ni saiatuko naiz ikasten.

Urrengo egunean Pototo'k:

-Lenengo ikasi bear deguna da "generoa" ondo be-reizten eta separatzen...

-Jeneroa? A bai, gure aitaitak, Araba'n erderaz ikasten ibillitakoak esaten zuanez "el genio del Kristau-genero del zain viene".

-Ba, orixe: generoa; zaiñetatik datorrena. Esate batera-ko: andrea andrea duk eta gizona gizona duk...

-Zu Pototo zera eta ni Oto naiz.

-Ez, gizona: ik eta nik zerak berdiñak zeuzkeagu; andra-gizonak ez, ordea.

-A! Ori al da jeneroa?

-Bai, ba.

-Jointxo! Jointxo!

Pototo'k:

-Orain asi gaitezen erderaz: bueno-buena, tonto-tonta, jecho-jeba... Orra bi jenero.

-Bi jenero? Nik ez det bat-ere ikusten...

-Bueno da jenero bat eta buena bestea. Ori ondo be-reizten ikasten ez ba'dek, laister asiko aiz "castaña oscuro"ka.

-Ta castañak jeneroa nun dauka ba...?

-Baiña, zeñ astakirten aiz i...? Castañak ez zeukak jenerorik; baiña, bere aizken letra a dalako, oscura esan bear da eta ez osкуро.

-Eta, mapa?

-Mapa? Ori bai, ori osкуро izan bear du.

-Zergaitik?

-Argaitik. Ikasi erderaz eta jakingo duk.

-Castañak eta mapak jenerorik ez ba-dute, zergaitik castaña buena eta mapa bueno esan bear da, bata emakumea eta bestea gizona balitzateke bezala?

-Ortan zegok, ba, jakinduria! Tontoak danak naasten dizkik; azkarrak, berriz, bereizten.

-Ordun, Pototo, benetako tonto-lapikoa nauzu.

* * *

Alaz ere, naasteak naaste, aurrera doaz erderaz ikasten. Pototo'k:

-Orain artikuloak ikusiko dizkiagu.

-Artikulu fedezkoak?

-Ez, motel. Auek errezagoak dituk. Begira ona im artikulo: el, la eta lo.

-Im?

-Bai, gizona, iru.

-Orain artean birekin ibilli gera..

-Ortan zegok aurrerapena: masculino, femenino eta neutro. Orra iru.

-Arranea! Castaña emakumezkoa (femenino), mapa gionezkoa (masculino) eta, neutro zein degu, ba?

-Iñusente orrelakoa, nungo munduan bizi aiz i? Trabesti zer diran ez dakik? Marik...

Oto gizarajoa gelditu zaigu K.O.: kordarik gabe, alegia... Aldameneko Pronxio'k esan zion au gogoratu zaio:

-Obe ukek erdera baifto, "batua" ikastea, orren erderakadakin ikasiko dek naiko erdera eta geiegi... Euskeraz ona esan eta naikoa degu: ona gizona, ona andrea eta ona erdibidekoa ere. Gero, Euskera zailla eta gaitza dala esango dute...

Lenengo ikasgaiarekin ia zoratu zaigu Oto eta Pronxio'n arrazoibidea darama buruan sartuta: erdera zuzenean ikastea baiño, errezago ez ote dan "batua"ren bidez zearka ikastea... Dana dala eta dena den, euskerak korta eta ikuillu-usaiña daramala berekin eta modernozibilizatu-kaleantzeko nai bere burua... eta segi aurrera naaste-borraste onetan.

-Zer degu gaur, Pototo?

-Gaur, aumentativos.

-Eta ori zer da?

-Gauza bat aundiago egiten danean. Esate baterako, cabeza-cabazon; buru-buru-aundi. Ia orain asmazak ik, Oto.

-Nik orrelakorik ez dakit.

-Oso erreza duk. Begira: zapato-zapaton, cabra-carbon...

-Cabra zer da?

-Auntza.

-Orduan cabron auntza aundia izango da.

-Cabron akerra duk, motel.

-Lenago esan didazu cabezon buru-aundi dala; eta orain, berriz, cabron ez dala auntza-aundi. Txorabioa sartzen zait, Pototo...

-Ik ez dakik ezer. Nik esan eta ik, Oto, erantzun: pelota...

-Peloton.

-Oso ederki. Bota...

-Boton.

-Ez, gizona, boton botoia duk.

-Eta, nola esan bear da, ba...?

-Botin, esan bear da. Guztiak berdin izateak ez du bature meriturik. Erreza izanen litzake. Orain beste bat: coraza...

-Corazon.

-Irekin ez zegok asmatzerik, Oto.

Oto lotaratu danean bere burua zebillen bueltaka errotarria bezala: bota-boton-botin, cabra-cabron, coraza-corazon... Lojika-gabeko zoro-izkera zeritzaion erderazko lenguaje ori... Bat-batean krisaillu bat piztu zitzaion garunen artean buru-barnean.

Euskera iruditu zitzaion ama eder baten antzera, mendian jaioa, garo-usaiña zeriola, goizeko intzeetan preska-

tua, eguzkiaren urre-gorritzko printzeetan edertua, ondo egiña, ederra, lojikaz betea, jakintsua, baso-oianetan gibelurdiñak bezala gordea... Maitagarria...

Benetan, etxeko ederra esagutzeko kanpora joatea bezelakorik ez da.

Ama eder ori kalera jeistean zarpail-xamar egiten zuten... Kale-ume eta euskaldun berrien agoetan sastrakata uzten zuten, antzik gabe... Dotoretzeko aitzakiakin txima-peluka eta soiñeko erdaldunekin jantziz, bere ederra kentzen zioten... Batasun-aitzakiakin zikin, arlote, mozorroz jantzitako txorimalo biurtzen zutela zeritzaion. Erderaz ikasi bearra zeukan Euzkadin ibiltzeko, erdaldunengatik eta baita ere euskaldun berri batasun-kumeengatik, auek esan eta idazten dutena ez bait da euskera utsakin ulertzen eta entenditzen...

Gau artan parre egiteko gogo guztiak joan zitzaizkion pikutara. Begian malkoa, euskerari batetik eta bestetik ematen zitzaion tratoa ikusita. Berak, Otok, zuan lenengo errua: euskeraz jaio, euskeraz azi, euskeraz bizi, eta berak euskarari bere biotzean ematen zion trato gaiztoa...! Gutxi-eistea zan bat, eta ia gorrotoa izatea, beste bat; gauza guztietarako erderaren bearrean bait zegon... Euskeraren errua baliz bezala, eta ez euskera ankapetua zutenena baizik; auna zan bai errua, benetako errua. Oraintxe kontuan erori. Eskerrak erderaz ikasten asi zalarik...! Aurrerantz lenengo euskera zaindu; gero geroakoak. Erderaz ikasteagaitik, ez euskerarik alperrik galdu. Eta auxe ondo gogoan artu:

Euskera salbatzeko orain bertan bear degula estatutua.

Gero, berandu litzake: urak pasata gero errota jartzea bezala litzake Estatutoa ukatu eta gero (Urliak daki noiz) beste baten zai gelditzea...

-Gaiñera-zion Pototok- el eta la, noiz-beinka itz berarekin erabiltzen dira gauza desberdiñak esateko.

-Nola da ori?

-Begira, Oto: el pez arraiña duk eta la pez pikia.

-Eta gure aurreko L6-pezu zer da, marikia...?

(1978)

